# AMEZKETAKO UDALERRIKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

# HASIERAKO DOKUMENTUA

2018ko ekaina

ekolur
Asesoría Ambiental · Ingurumen Aholkularitza

## AURKIBIDEA

1. SARRERA ..... 3
2. INFORMAZIOA ..... 4
2.1. FORMULARIOA. URRIAREN 16KO 211/2012 DEKRETUAREN V. ERANSKINA ..... 4
2.2. FORMULARIOAREN MEMORIA OSAGARRIA ..... 4
3. IRIZPIDEAK, HELBURUAK ETA PLANAREN EZAUGARRIEN DESKRIBAPENA ..... 5
3.1. IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK ..... 5
3.2. INGURUMEN ETA INGURUNE FISIKOKO IRIZPIDEAK ..... 6
3.3. LANDA INGURUNEA ..... 6
3.4. HIRI EREMUA ..... 6
3.5. BIZITEGI ERABILERARAKO LURRAK ..... 6
3.6. JARDUERA EKONOMIKOAK ..... 6
3.7. EKIPAMENDUAK ETA EREMU LIBREAK ..... 7
3.8. GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA ..... 7
3.9. AZPIEGITURAK ETA ZERBITZU SAREAK ..... 7
3.10. ONDAREA ..... 7
4. AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBEN DESKRIBAPENA ..... 8
4.1. 0 ALTERNATIBA ..... 8
4.2. 1 ALTERNATIBA ..... 10
4.3. 2 ALTERNATIBA ..... 13
4.4. 3 ALTERNATIBA ..... 16
4.5. LUR HIRITARREZINAREN PROPOSAMENA ..... 19
4.6. ALTERNATIBEN PROPOSAMEN NAGUSIEN LABURPENA ..... 20
5. LURRALDEAREN INGURUMEN AZTERKETA ..... 21
5.1. PLANAREN JARDUN ESPARRUA ETA KOKAPENA ..... 21
5.2. OROGRAFIA ..... 21
5.3. EZAUGARRI GEOLOGIKOAK ..... 22
5.4. HIDROLOGIA ..... 23
5.5. EDAFOLOGIA ETA AHALMEN AGROLOGIKOA ..... 27
5.6. LANDAREDI ETA LURZORUAREN ERABILERAK ..... 29
5.7. INTERESKO FAUNA ..... 34
5.8. INTERES NATURALISTIKOKO EREMUAK ..... 37
5.9. PAISAIA ..... 39
5.10. KULTUR-ONDAREA ..... 40
5.11. INGURUMEN-PROZESU ETA ARRISKUAK ..... 43
5.12. INGURUMEN UNITATE HOMOGENEOAK ..... 47
6. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARREKINAREN ANALISIA ..... 50
6.1. LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK ..... 50
6.2. TOLOSERRIKO (TOLOSALDEA) EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE ZATIKAKO PLANA ..... 51
6.3. EAEKO IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA ..... 52
6.4. NEKAZARITZA ETA BASOZIANTZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA ..... 53
6.5. EAEKO JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORU PUBLIKOA ETA MERKATARITZA EKIPAMENDUAK SORTEZKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA ..... 54
6.6. GAINONTZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALAK ..... 55
7. AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBEI BURUZKO INGURUMEN AZTERKETA ..... 56
7.1. ALTERNATIBEN INGURUMEN-AZTERKETARAKO METODOLOGIA ..... 56
7.2. 0 ALTERNATIBAREN INGURUMEN AZTERKETA ..... 57
7.3. 1 ALTERNATIBAREN INGURUMEN AZTERKETA ..... 60
7.4. 2 ALTERNATIBAREN INGURUMEN AZTERKETA ..... 63
7.5. 3 ALTERNATIBAREN INGURUMEN AZTERKETA ..... 66
7.6. ALTERNATIBEN INGURUMEN AZTERKETAREN KONPARAKETA ..... 69
8. NATURA 2000 SAREARI ERAGINAK ..... 70
9. PARTE-HARTZE PUBLIKOA, INFORMAZIOA ETA KONTSULTEN IZAPIDETZEAK ..... 71

# 1. SARRERA

Plan eta Programen Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoa baliabide naturalak zaindu eta ingurumena babesteko prebentzio-baliabide egokia da. Baliabide honen bitartez ingurumen aldagaia kontutan hartzen da ingurumenaren gainean eragin nabarmena duten plan eta programei buruzko erabakiak hartzeko orduan.

Europar Batasunak plan eta programa hauek ingurumenaren aldetik aztertzeko garrantzia onartu zuen eta, hala, ekainaren 27ko 2001/42/CE Zuzentaraua ezarri zuen, hainbat planek eta programak ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeko.

Zuzentarau hau apirilaren 28ko 9/2006 Legeak, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean dituzten eraginen ebaluaketari buruzkoak, barneratu zuen. Lege hau, ingurumen ebaluaketari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak indargabetua eta ordezkatua izan da.

EAEko esparruan, otsailaren 27ko 3/1998 Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrak arestian aipatutakoei aurre hartu zien eta plan eta programen ingurumen ebaluaketarako prozedura ezarri zuen, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren bitartez garatua. 2012ko urriaren 16an, 211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumenaren gaineko ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena, onartu zen, aurreko Dekretua indargabetu eta ordezkatuz.

211/2012 Dekretuak plan eta programen ingurumen ebaluaketa estrategikoa aplikatzeko esparrua jartzen du, Estatuko oinarrizko araudia kontutan hartu eta EAEk gain honen inguruan dituen eskumenak garatzen dituelarik. Dekretu honek Ingurumen Ebaluaketa Estrategikoa (IEE aurrerantzean) aplikatzeko esparrua zehazten du 4. artikuluan, 3/1998 Legearen I. Eranskinaren A atalean jasotzen diren plan eta programei dagokienean. Prozedura honen mende dauden planen artean Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrak daude.

Dekretu honen 8. artikuluan, *Hastea*, zehazten denaren arabera, organo sustatzaileak [Amezketako Udalak] hasierako agiri bat igorriko dio ingurumen arloko organoari [Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza] artikulu horretan bertan zehazten den edukia izango duena.

Dokumentu hau, hain zuzen ere, Amezketako Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren (HAPO) hasierako agiria da. EKOLUR Ingurumen Aholkularitza, SLL enpresako honako teknikariek idatzi eta prestatu dute:

- Leire Paz (biologian lizentziatua)
- Alexandra Egunez (biologian graduatua)
- Angela Oscoz (farmazian lizentziatua eta Masterra ingurumen inpaktuen ebaluazio eta zuzenketan)
- Tomas Aranburu (nekazaritza-ingeniari teknikoa)

# 2. INFORMAZIOA

## 2.1. FORMULARIOA. URRIAREN 16KO 211/2012 DEKRETUAREN V. ERANSKINA

(PDF formatuan erantsitako dokumentua).

## 2.2. FORMULARIOAREN MEMORIA OSAGARRIA

(ondoren datorrena).

# 3. IRIZPIDEAK, HELBURUAK ETA PLANAREN EZAUGARRIEN DESKRIBAPENA

## 3.1. IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK

HAPO-ren funtsezko helburua Amezketako udalerriak bere ingurune naturalarekin eta lurraldean duen kokapenarekin izan behar duen erlazioa pentxatzetik hasten da, zailtasun sozio-ekonomiko larriak aurkezten dituen eredu erdi-zaharkitua modernizatuz, eta gaur egungo gizartearen beharretara moldatuz, gizarte egituraren arrazioengatik denboran zehar iraun duen gainbehera demografikoari buelta emateko helburuarekin.

Helburu hau lortzeko, beharrezkoa da herrian bertan beraien bizi-proiektua garatu nahi dutenentzat baldintzak sortzea, arrazoi ekonomiko, laboral edo sozialengatik alde egin gabe. Eredu sozio-ekonomikoa dibertsifikatzeko beharra ikusten da, gaur egun manufaktura-industrian (*Aralar Papelera*) oinarrituta, lehen sektorea eta zerbitzuen sektorea sustatuz.

Aipatzekoa da, helburu hau gauzatzeko behar diren ekimen eta erabakiak hiri antolamendutik haratago doaz, eta batez ere, Amezketa bertako biztanleen inplikazioa eta konpromezua eskatzen ditu. Hala ere, HAPO-k duen erronka hirigintza planaren bitartez administrazio edota biztanleen jarduera ekintzaileak lagundu eta erraztea da. Gutxienez, oztopo bat izan ez dadin helburuak lortzeko.

Bide horretan, geroago azalduko diren izaera orokorreko edota sektorialeko irizpideez gain, garrantzi handikoa da antolatutako esparruetan erabilera mixtoa sartzea kalifikazio orokorrean. Horrez gain, etorkizuneko lurralde-plangintzari flexibilitatea ematea erabileren sistematizazioaren gaian, beti ere, lurralde garapeneko eredu argi eta koherente bati uko egin gabe eta udalaren plangintzaren gainetik dauden araudiekin kontraesanean erori gabe.

Une historiko honetan, Amezketako hiritarrei aurrera pauso bat eta erabaki sendo bat eskatzen zaie herriaren etorkizunagatik. Hiri plangintzak esfortzu honi lagundu behar dio eta ezin da ozopo bihurtu aukeratzen den lurralde ereduarekin eta eredu sozio-ekonomikoarekin koherenteak diren ekimenen aurrean, beti ere, ekimen hauek Amezketako plangintzaren balio estrukturalak, hau da, aberastasun ekologikoa, ingurumena, paisaia eta kultura arriskuan jartzen ez badituzte.

Testuinguru horretan, eta Lurzoruako eta Hirigintzako 2/2006 Legeko II. kapituluan ezarritako hirigintza printzipio orokorren garapenerako, honako irizpide orokorrak hurrengoak dira:

1. Garapen jasangarria. Oraingo belaunaldien beharrak asetzen dituena etorkizuneko belaunaldien aukerak arriskuan jarri gabe.

    a. Ingurumen eta ekologia jasangarritasuna:
        - Balio natural eta agrologikoen babesa eta berreskurapena, eta lurzoruaren okupazio jasangarria.
        - Ibai sistemaren babesa eta berreskurapena, eta baliabide hidrologikoen ustiapen iraunkorra.
        - Baliabide naturalen ustiapen eraginkorra, eraginkortasun energetikoaren, energia berriztagarrien erabileraren, eta ekonomia zirkularraren (murriztapen-berrerabilpen-birziklatzeko) sustapena, hondakinen ekoizpena txikiagotuz.
        - Motorizatutako ibilgailuen erabilera txikiagotuz, higikortasun jasangarria sustatzea garraio publikoaren erabileraren bitartez eta oinezkoen eta bizikletazko mugikortasuna bultzatuz.
        - Paisaiaren ezaugarrien babesa eta berreskurapena, bere alde kulturala kontuan hartuz, eta bereziki euskara-ren gainean izan ditzakeen ondorioak arreta handiz aztertuz.

    b. Jasangarritasun ekonomikoa:
        - Garapena eta komunitatearen ongizate ekonomikoa sustatzea, erabilera emankorretara zuzendutako lurzoruaren egokitzea bermatuz.
        - Administrazio publikoen gainean planak eragindako inpaktuak haztatu, batez ere bertakoak, beharrezko azpiegituren ezarpena eta mantendua edo zerbitzuak eskeintzeagatik sortu daitezkenak.
        - Hiri plangintzan proposatutako jardueren bideragarritasun ekonomiko-finantzieroa bermatzea.

    c. Jasangarritasun soziala:

- Herritar guztien kohesio soziala eta berdintasuna sustatzea, batez ere, Amezketako emakumeen egoera sozio-ekonomikoa kontutan hartuz.
- Helburu komunen jazarpenean herritarren konpromezua sustatzea, herritarren parte-hartzearen eta zuzeneko demokraziaren bitartez.

2. Interes publikoa.

   Hiria Antolatzeko Plan Orokorra osatzerakoan kontutan hartuko da Amezketako herritarren “borondate orokorra” eta ez norbanakoen interesak. Hau, herritarren parte-hartzearen eta zuzeneko demokraziaren bitartez bermatuko da.

3. Hitzarmena.

   Indarrean dagoen Lurralde antolaketa araudiak ezartzen duen lurralde ereduaren eta inguru fisikoaren antolaketaren inguruan, Amezketako udalerria Aralarko Parke Naturala dela eta “lurralderako sarbide nukleoa” izendatzen da. Inguruko Udaletxeekin komunikazioa, kontsulta eta negoziaketa gomendatzen dira, Aralarko ondare naturalaren kudeaketarako.

4. Parte-hartze publikoa

   Lehen aipatu den moduan, jasangarritasun sozialaren funtsezko zatia da.

## 3.2. INGURUMEN ETA INGURUNE FISIKOKO IRIZPIDEAK

1) Eremu naturalen eta biodibertsitatearen babesa eta kontserbazioa.
2) Ibai eta erreken sistemaren babesa eta errekuperazioa.
3) Ingurumen arriskuen prebentzioa.
4) Nekazaritza lurren eta basoen babesa eta birsorkuntza.
5) Paisaiaren babesa eta berreskurapena
6) Herritarrak sentsibilizatu eta ingurumenaren ustiapen arduratsua sustatu.

## 3.3. LANDA INGURUNEA

7) Baserrien tipologia tradizionala babestu eta birgaitzea.
8) Azpiegitura eta zerbitzu hornidura egokiak.

## 3.4. HIRI EREMUA

9) Hierarkizatutako kokagune-sistema polinuklearreko sendotzea.
10) Kokagune-sistemaren artikulazioa
11) Hiri paisaiaren ezaugarrien babesa

## 3.5. BIZITEGI ERABILERARAKO LURRAK

12) Udalaren bizitegi-ahalmenaren berrikustea.
13) Etxebizitza duinerako eskubidea.
14) Etxebizitza-parkearen jasangarritasuna.

## 3.6. JARDUERA EKONOMIKOAK

15) Nekazaritza eta abeltzaintza eta basoko jardueren sustapena eta babesa.
16) Zerbitzu-sektorearen garapena.
17) Jarduera industrial endogenoaren sendotzea

## 3.7. EKIPAMENDUAK ETA EREMU LIBREAK

18) Hornikuntzarako ekipamentuen garapena eta sendotzea.
19) Eremu publikoen hiri-kalitatearen hobekuntza.

## 3.8. GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

20) Higikortasun jasangarriaren sustapena.
21) Ibilgailu pribatuaren integrazio eraginkorra.
22) Landa bide sarearen garapena eta mantendua.

## 3.9. AZPIEGITURAK ETA ZERBITZU SAREAK

23) Edateko uraren hornikuntza sarearen hobekuntza.
24) Saneamendu sarearen hobekuntza.
25) Argi publikoen sisteman jasangarritasun irizpide aplikazioa.

## 3.10. ONDAREA

26) Eraikitako ondare arkeologikoaren kontserbazioa eta balioan jartzea.
27) Ondare materiagabearen babesa eta kontserbazioa

# 4. AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBEN DESKRIBAPENA

Aintzat hartutako alternatibak 4 dira. Alde batetik, indarrean dagoen plangintza, hau da, 2007ko Arau Subsidiarioek eta gerora onartu diren hauen aldaketek proposaturiko antolamendua (0 alternatiba) eta bestetik, indarrean dauden arau hauek aldatzeko proposamenak (1, 2 eta 3 alternatibak).

## 4.1. 0 ALTERNATIBA

Alternatiba hau bat dator indarrean dauden arau subsidiarioekin, 2007an onartuak, eta hauetan egin diren modalketekin. Hala ere, nabarmentzekoa da indarrean dagoen araudi honen aurreikuspen asko garatu gabe daudela. Horrez gain, alternatiba hau ez da egokitzen legeri urbanistikora (2/2006 Legea), eta ezta ere bere onespenaren ondoren indarrean sartu den lurralde eta planeamendu sektorialera.

| 0 ALTERNATIBA | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Esparruak A.I.U. | Azalera m²(s) | Zonaketa orokorra | | | | | | | |
| | | Bizitegi erabilera | | Jarduera ekonomikoak | | Ekipamenduak | | Eremu libreak + ibaiaren ibilguak | Komunikabide sistema |
| | | Azalera | Hazkuntza. | Azalera | Hazkuntza. | Azalera | Hazkuntza. | | |
| | | m²(s) | kopurua | m²(s) | m²(t) | m²(s) | m²(t) | m²(s) | m²(s) |
| 1 Ergoene | 53.977 | 44.645 | 44 | - | - | 4.546 | - | 2.115 | 2.671 |
| 2 Papelera* | 53.274 | 1.214 | - | 49.628 | - | - | - | 1.027 | 1.405 |
| 3 Hirigunea | 21.179 | 16.226 | 17 | - | - | 459 | - | 4.192 | 302 |
| 4 Larraitz | 22.729 | 18.601 | 36 | - | - | 2.183 | 1.400 | 1.287 | 658 |
| 5 Saihesbidea | 20.417 | - | - | - | - | - | - | 182 | 20.235 |
| 6 Alegialde | 21.532 | 20.052 | 6 | - | - | - | - | 1.326 | 154 |
| 7 Jauregi | 21.827 | 19.795 | 66 | - | - | 1.832 | 2.420 | 200 | - |
| 8 Insa.-Zubi. | 23.721 | 13.399 | 4 | 4.404 | - | - | - | 1.541 | 4.377 |
| 9 Ola | 69.054 | - | - | 58.674 | 16.848 | - | - | 1.859 | 8.521 |
| 10 Ugarte | 12.142 | 9.137 | 10 | - | - | 842 | - | 1.104 | 1.059 |
| GUZTIRA | 319.852 | 143.069 | 183 | 112.706 | 16.848 | 9.862 | 3.820 | 14.833 | 39.382 |

**Arau subsidarioen aldaketa puntuala barne, behin behinean 2016/09/29-an onartua; Eraikigarritasuna ez da handitzen, aurreikusitakoa orain hari baitira eraikitzen.*

Alternatibak aurreikusten dituen 183 etxebizitzetatik 25 isolatutako jarduerei eta hornidurarako eraikinei dagozkie, beraz, bizitegi ahalmenerako aurreikuspena 159 etxebizitzakoa izango litzateke. Hala ere, alternatibak sendotzen duen indarrean dagoen lurralde ereduak, hainbesteko bizitegi programa inola ere justifikatzen ez duena, LAA-etako zenbaketan garbi geratzen den moduan.

San Martin esparruari dagokionez, hau lur ez urbanizagarrian kokatzen da, eta sistema orokorraren barruan sailkatzen da, ekipamendu eta eremu libreez osatuta.




1. *irudia:* 0 Alternatibaren lurzoruaren sailkapena. Iturria:Amezketako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra-Aurrerapena.

## 4.2. 1 ALTERNATIBA

Alternatiba honek aldaketa arinak proposatzen ditu indarrean dagoen plangintza aldatzeko, eta horrela HAPO-n ezarritako helburu eta irizpideetan eragiteko asmoz. Aipaturiko aldaketak antolamenduko hurrengo proposanen orokorretan gauzatzen dira:

- 1 Ergoene esparrua

  - Eremu libreen partzela bat ezartzen da, hori dela eta, 18 etxebizitza gutxiago eraikiko dira 0 alternatibarekin alderatuta.

  - Gaur egun errota den eraikina ekipamendurako erabiliko da.

  - Indarrean dagoen araudian bizitegi erabilera duen 2 etxebizitzako lursaila (GR-20 errepideen ertzean) hotel zerbitzuetara bideratutako partzela bihurtuko da.

- 2 Papelera esparrua

  - Herri Eskola kokalekuz aldatzen da, baina bere gaur egungo kokapena ekipamendu eremu moduan mantenduko da. Oraindik zehaztu gabe dago edukiko lukeen erabilera.

- 3 Hirigunea esparrua

  - Esparruaren mugaketa aldatzen da eta udalaren ekipamenduko eremu nagusiak bertan finkatzen dira (udaletxea eta pilotalekua, 0 alternatiban Larraitz-bidea esparruan zeudenak).

  - Eremu publikoaren kalitatea hobetzeko aparkalekuak kentzen dira.

- 4 Larraitz-bidea esparrua

  - Handitu egiten da esparru hau, bertan Herri Eskola eta jarduera ekonomikoak ezartzen dira.

  -Trafiko eta aparkamenduak ordenatuko dira hirriguneari estaldura emanez.

- 5 Saihesbidea

  -Ez du aldaketarik proposatzen indarrean dagoen araudiarekin alderatuz.

- 6 Alegialde esparrua

  - Erabilera mixtoa proposatzen da: Bizitegi erabilera eta jarduera ekonomikoak (zerbitzuak) uztartuz.

  - Ibilgailuen zirkulazioa zentzu bakar batean ezarriko da eta oinezkoen bidea eta ibilgailuena batuz izaera mixtoa izango du.

  -Antolamendutik kanpo dauden bizitegi erabilerako eraikinak finkatu egiten dira.

- 7 Jauregi

  - Bizitegi-garapena murriztu egiten da 32 etxebizitza arte.

  - GI-2133 errepidearen ondoko lursaila eremu libre moduan sailkatzen da.

- 8 Insausti-Zubillaga

  - Indarrean dagoen hiri antolamendua sendotzen da.

  -Ola esparruko industrialderako sarbidea aurreikusten da.

- 9 Lapatza

  - Ola esparruaren (orain Lapatza) azalera murriztu egiten da eta 2015eko azaroan onartutako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualeko antolamendua ontzat ematen da.

- 10 Olalde

  - Hirigintza esparru berri bat sortzen da Olalde izenekoa.

  - GI-2133 errepideko trafikoa ordenatzen da.

- Jarduera ekonomikoetarako eremua antolatzen da, jaurduera industrial astunak kanpo utziz, nolanahi ere nekazaritza eta abeltzaintzako produktuetako transformaziora, populazioarentzako zerbitzuetara, ostalaritzara, etab zuzenduta.

- 11 Ugarte

  - Esparrua handitu egiten da, lehendik aurreikusita zeuden 10 etxebizitzez gain beste 12 etxebitzitza eraikitzeko proposamena egiten du alternatiba honek.

  - Gaur egun Ugarteko biztanleek ez dituzten ekipamendu eta eremu libre berriak antolatzen dira auzoan.

| 1 ALTERNATIBA | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Esparrua A.I.U. | Azarela $m^2(s)$ | Zonaketa orokorra | | | | | | | |
| | | Bizitegi erabilera | | Jarduera ekonomikoak | | Ekipamenduak | | Eremu libreak + ibaiaren ibilguak | Komunikabide sistema |
| | | Azalera | Hazkuntza. | Azalera | Hazkuntza. | Azalera | Hazkuntza. | | |
| | | $m^2(s)$ | kopurua | $m^2(s)$ | $m^2(t)$ | $m^2(s)$ | $m^2(t)$ | $m^2(s)$ | $m^2(s)$ |
| 1 Ergoene | 54.397 | 39.315 | 24 | 678 | 504 | 5.493 | 114 | 6.240 | 2.671 |
| 2 Papelera* | 52.889 | - | - | 49.625 | - | - | - | 1.027 | 2.237 |
| 3 Hirigunea | 26.902 | 19.797 | 17 | - | - | 1.609 | - | 5.420 | 76 |
| 4 Larraitz | 25.319 | 899 | - | 6.240 | 1.500 | 9.548 | 1.500 | 4.049 | 4.583 |
| 5 Saihesbidea | 20.420 | - | - | - | - | - | - | 160 | 20.260 |
| 6 Alegialde** | 21.230 | 19.818 | 1 | - | - | - | - | 1.326 | 86 |
| 7 Jauregi | 21.892 | 16.384 | 32 | - | - | - | - | 5.508 | - |
| 8 Insa.-Zubi. | 24.453 | 13.270 | 4 | 4.404 | - | - | - | 2.273 | 4.506 |
| 9 Lapatza | 50.657 | - | - | 35.809 | 12.000 | 702 | 500 | 10.875 | 3.271 |
| 10 Olalde | 22.728 | 11.960 | - | 6.442 | 2.000 | - | - | 378 | 3.948 |
| 11 Ugarte | 23.425 | 14.306 | 22 | - | - | 842 | - | 5.284 | 2.993 |
| GUZTIRA | 344.312 | 135.749 | 100 | 103.198 | 16.004 | 18.194 | 3.614 | 42.540 | 44.631 |
| % s/0 alternatiba | 107,65 | 94,88 | 54,64 | 91,56 | 94,99 | 184,49 | 94,61 | 286,79 | 113,33 |

**Arau subsidarioen aldaketa puntuala barne, behin behinean 2016/09/29-an onartua; Eraikigarritasuna ez da handitzen, aurreikusitakoa orain hari baitira eraikitzen.*

***Bizitegi zonaketa orokorra erabilera mixtoa kontsideratzen da. Zerbitzuen jarduera ekonomikoak sustatzeko helburuarekin eraikinen beheko solairuan ezarriko dira hauek.*

San Martin esparruari dagokionez, hau lur ez urbanizagarrian kokatzen da, eta indarrean dagoen araudiarekin bat egiten du alternatiba honek sistema orokorraren barruan sailkatuz, ekipamendu eta eremu libreez osatutako eremua. Gainera, San Martin esparruaren zati bat landa-nukleo ezartzea proposatzen du.




2. *irudia:* 1 Alternatibaren lurzoruaren sailkapena. Iturria:Amezketako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra-Aurrerapena.

## 4.3. 2 ALTERNATIBA

Alternatiba honek aldaketa sakonak proposatzen ditu indarrean dagoen plangintza aldatzeko. Hurrengo aldaketak proposatezn ditu antolamenduan:

- 1 Ergoene esparrua

  -Zaharren egoitza moduan erabiliko den ekipamendu moduan sailkatzen da 1 alternatiban eremu libreko lursail sailkatzen den partzela.

  -Errota eta Altuna anaiak pilotalekuaren artean dagoen lursaila, ibai ibilguaren eskubialdea, eremu librea proposatzen da. Horrela, aipatutako bi ekipamenduak elkartuko dituen erriberako parke bat eta zerbitzu turistiko posibleak aurreikusten dira.

- 2 Papelera esparrua

  -Herri Eskola esparru honetatik kanpo ezartzen da eta bere lekuan papelerako aktibitateari osagarri jarduera ekonomikoetara zuzendutako partzela proposatzen da (jarduera ekonomiko astunak baztertuz).

  -Hirigunearen eta Ergoeneren arten oinezkoen eta ibilgailuen bidea zabaltzea proposatzen da papeleraren esparruari dagokion zatian.

- 3 Hirigunea esparrua

  -1 alternatiban aurreikusitakoa finkatzen da eremu honetan.

- 4 Larraitz-bidea esparrua

  -0 alternatiban aurreikusten den bizitegi programa berrezartzen da. Gainerako eremuan 1 alternatiban proposatutako aldaketak finkatzen dira.

- 5 Saihesbidea esparrua

  -Ez du aldaketarik proposatzen indarrean dagoen araudiarekin eta 1 alternatibarekin alderatuz.

- 6 Alegialde esparrua

  -1 alternatiban aurreikusitakoa finkatzen da eremu honetan.

- 7 Zabalkude esparrua

  -Esparru Berri bat sortzen da Jauregi esparruko zati bat hartuz.

  -Bizitegi eremuaren garapena bertan behera geratzen da eta horren ordez ekipamendura bideratzen da esparru berria, konkretuki, bertan proposatzen da Herri Eskolaren kokapen berria.

- 8 Jauregi-Zubillaga

  -Insausti-Zubillaga esparruan Jauregi-haundi eta Jauregi-txiki partzelak gehietzen dira. Batasun horretatik sortzen den esparru berriaren izena Jauregi-Zubillaga da.

  -Zubillagako gaur egungo jarduera ekonomikoak lekuz aldatzea proposatzen da, eta lursail horretan 8 etxebizitza berri eraiki eta eremu libreak ezarriko lirateke.

- 9 Lapatza esparrua

  -1 alternatiban aurreikusitakoa finkatzen da eremu honetan, baina Eremu libreei dagokien lursaila murriztu egiten da.

- 10 Olalde esparrua

  -1 alternatiban aurreikusitakoa finkatzen da eremu honetan.

- 11 Ugarte esparrua

  -1 alternatiban aurreikusitakoa finkatzen da eremu honetan.

  -6 etxebizitza lekualdatzen dira ibai ibilguaren ezkeraldetik eskuinaldera.

-Gainera, ibaiaren eskuinaldean eremu libreak eta ekipamenduak aurreikusten dira.

| 2 ALTERNATIBA | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Esparrua A.I.U. | Azarela m²(s) | Zonaketa orokorra | | | | | | | |
| | | Bizitegi erabilera | | Jarduera ekonomikoak | | Ekipamenduak | | Eremu libreak + ibaiaren ibilguak | Komunikabide sistema |
| | | Azalera | Hazkuntza. | Azalera | Hazkuntza. | Azalera | Hazkuntza. | | |
| | | m²(s) | kopurua | m²(s) | m²(t) | m²(s) | m²(t) | m²(s) | m²(s) |
| 1 Ergoene | 51.299 | 34.948 | 20 | 678 | 504 | 5.249 | 3.114 | 7.542 | 2.882 |
| 2 Papelera* | 56.138 | - | - | 50.267 | 763 | - | -763 | 1.243 | 4.628 |
| 3 Hirigunea | 26.902 | 19.797 | 17 | - | - | 1.609 | - | 5.420 | 76 |
| 4 Larraitz | 25.319 | 10.283 | 36 | 6.404 | 1.500 | - | - | 4.049 | 4.583 |
| 5 Saihesbidea | 20.420 | - | - | - | - | - | - | 160 | 20.260 |
| 6 Alegialde** | 21.230 | 19.818 | 1 | - | - | - | - | 1.326 | 86 |
| 7 Zabalkunde | 12.193 | - | - | - | - | 12.044 | 1.500 | 149 | - |
| 8 Jaur.-Zubi. | 28.887 | 19.521 | 12 | - | - | - | - | 4.860 | 4.506 |
| 9 Lapatza | 44.462 | - | - | 35.809 | 12.000 | 702 | 500 | 5.251 | 2.700 |
| 10 Olalde | 22.728 | 11.960 | - | 6.442 | 2.000 | - | - | 378 | 3.948 |
| 11 Ugarte | 32.937 | 19.190 | 40 | - | - | 1.115 | 750 | 8.980 | 3.652 |
| GUZTIRA | 342.515 | 135.517 | 126 | 99.600 | 16.767 | 20.719 | 5.101 | 39.358 | 47.321 |
| % s/0 alternatiba | 107,09 | 94,72 | 68,85 | 88,37 | 99,52 | 210,09 | 133,53 | 265,34 | 120,16 |

**Arau subsidarioen aldaketa puntuala barne, behin behinean 2016/09/29-an onartua; Eraikigarritasuna ez da handitzen, aurreikusitakoa orain hari baitira eraikitzen.*

***Bizitegi zonaketa orokorra erabilera mixtoa kontsideratzen da. Zerbitzuen jarduera ekonomikoak sustatzeko helburuarekin eraikinen beheko solairuan ezarriko dira hauek.*

San Martin esparruari dagokionez, hau lur ez urbanizagarrian kokatzen da, eta 0 eta 1 alternatiben kontra alternatiba honek esparrua kanpamentu erabilerarako proposatzen du. Gainera, San Martin esparruan landa-nukleo bat ezartzea proposatzen du.




3. *irudia:* 2 Alternatibaren lurzoruaren sailkapena. Iturria:Amezketako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra-Aurrerapena.

## 4.4. 3 ALTERNATIBA

Alternatiba honek indarrean dagoen lurralde-modeloaren zuzenketa prozesua burutzen du. Hurrengo aldaketak ezartzen ditu azken proposamenak:

- 1 Ergoene esparrua

  Gaur egun aurreikusten den etxebizitza programaren zatirik handiena deuseztatu egiten da, ordezkapen operazioak eta/edo hiri sarea oso bat osatzeko operazioak soilik finkatuz. Bizitegi erabilera duen partzela bat dotazio erabilera izatera pasako da, ekipamendu moduan ezarriko da bertan Herri Eskola berria. Bestalde, 2 Alternatiban aurreikusten dena finkatuko da.

- 2 Papelera esparrua

  2 Alternatiban agertzen diren aurreikuspenak finkatzen dira.

- 3 Hirigunea esparrua

  2 Alternatiban agertzen diren aurreikuspenak finkatzen dira, baina Haur Eskola eta medikuaren kontsulta dagoen eraikina eraitsi egiten da. Ibaia herriaren erdigunearekin integratzeko asmotan eremu publiko libre bat sortuko da.

- 4 Larraitz-bidea esparrua

  Larraitz-bidearen azalera drastikoki murrizten da, deuseztatu egiten dira aurreikusita zeuden eta eraiki gabe dauden ustiapen guztiak, Zubeldia etxearen zabalkuntza izan ezik. Esparru honek aukera emango du trafikoa eta aparkalekuak birantolatzeko.

- 5 Saihesbidea esparrua

  Ez du aldaketarik proposatzen beste alternatibarekin alderatuz.

- 6 Alegialdea esparrua

  2 alternatiban ezartzen diren aurreikuspenak finkatzen dira, hala ere, iparraldeko muturrean mugaketa zertxobait handitzen da.

2 alternatibako Zabalkudea esparrua lurzoru ez urbanizagarra moduan sailkatzen da, eta aurreikusitako edozein eratako eraikigarritasuna deuseztatzen da. Honen helburua, herriaren erdigunearen hazkundea gelditzea da bailaran behera, eta Jauregi eta Zubillagaren hiriz kanpoko izaera.

- 7 Jauregi-Zubillaga esparrua

  2 alternatiban ezartzen diren aurreikuspenak finkatzen dira.

- 8 Lapatza esparrua

  Esparrua murriztu egiten da eta ustiapenak ibaiaren eskuinaldean ezartzen dira, ezkerraldea eremu libre publiko moduan sailkatuz.

- 9 Olalde esparrua

  2 alternatiban ezartzen diren aurreikuspenak finkatzen dira.

- 10 Ugarte

  2 alternatiban ezartzen diren aurreikuspenak finkatzeaz gain, oraindik ere garapen handiago bat proposatzen da. Horrela, esparru honetan aurreikusten da udalerriko bizitegi programa handiena. Bizitegi eremu berri hauek

auzoaren hazkunde endogenora eta bigarren etxebizitzara bideratuta daude. Horrez gain, ekipamenduak eta eremu libreak antolatzen dira.

| 3 ALTERNATIBA | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Esparrua A.I.U. | Azarela m²(s) | Zonaketa orokorra | | | | | | | |
| | | Bizitegi erabilera | | Jarduera ekonomikoak | | Ekipamenduak | | Eremu libreak + ibaiaren ibilguak | Komunikabide sistema |
| | | Azalera | Hazkuntza. | Azalera | Hazkuntza. | Azalera | Hazkuntza. | | |
| | | m²(s) | kopurua | m²(s) | m²(t) | m²(s) | m²(t) | m²(s) | m²(s) |
| 1 Ergoene | 51.299 | 30.106 | 8 | 678 | 504 | 10.091 | 1.614 | 7.542 | 2.882 |
| 2 Papelera* | 56.138 | - | - | 50.267 | 763 | - | -763 | 1.243 | 4.628 |
| 3 Hirigunea | 26.902 | 19.583 | 17 | - | - | 1.490 | - | 5.753 | 76 |
| 4 Larraitz | 10.987 | - | - | 1.480 | 500 | 2.220 | 2.000 | 3.711 | 3.576 |
| 5 Saihesbidea | 20.420 | - | - | - | - | - | - | 160 | 20.260 |
| 6 Alegialde** | 22.252 | 20.840 | 1 | - | - | - | - | 1.326 | 86 |
| 7 Jaur.-Zubi. | 28.887 | 19.521 | 12 | - | - | - | - | 4.860 | 4.506 |
| 8 Lapatza | 39.384 | - | - | 24.649 | 8.000 | - | - | 12.613 | 2.122 |
| 9 Olalde | 22.728 | 11.960 | - | 6.442 | 2.000 | - | - | 378 | 3.948 |
| 10 Ugarte | 50.825 | 27.222 | 56 | 6.924 | 2.000 | 1.115 | 750 | 10.322 | 5.242 |
| GUZTIRA | 329.832 | 129.232 | 94 | 90.440 | 13.767 | 14.916 | 3.601 | 47.918 | 47.326 |
| % s/0 alternatiba | 103,12 | 90,33 | 51,37 | 80,24 | 81,71 | 151,25 | 94,27 | 323,05 | 120,17 |

**Arau subsidarioen aldaketa puntuala barne, behin behinean 2016/09/29-an onartua; Eraikigarritasuna ez da handitzen, aurreikusitakoa orain hari baitira eraikitzen.*

***Bizitegi zonaketa orokorra erabilera mixtoa kontsideratzen da. Zerbitzuen jarduera ekonomikoak sustatzeko helburuarekin eraikinen beheko solairuan ezarriko dira hauek.*

San Martin esparruari dagokionez, hau lur ez urbanizagarrian kokatzen da, eta 0 eta 1 alternatiben kontra, alternatiba honek eta aurrekoak esparrua kanpamentu erabilerarako proposatzen dute.




*4. irudia:* 3 Alternatibaren lurzoruaren sailkapena. Iturria:Amezketako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra-Aurrerapena.

## 4.5. LUR HIRITARREZINAREN PROPOSAMENA

Udalerriko lur ez urbanizagarriaren antolaketa ein handi batean Aralar Parke Naturalaren baldintzapean dago. Beraz, Parke Naturalaren barnean dauden lurrak udalaren araudien gainetik kudeatuta eta antolatuta daude. Ondoren adierazten da indarrean dagoen legeria:

- 168/1994 dekretua, apirilak 26, Aralarko Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana.
- 168/1994 dekretua, apirilak 26, Aralar parke natural aitortzen da.
- 146/2004 dekretua, uztailak 13, Aralarko Parke Naturalaren Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana aldatzen da.
- 84/2016 dekretua, maiatzak 31, Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu.
- Aralar Parke Naturaleko Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plan Zuzentzailea.

Lur ez urbanizagarriaren antolakuntzarako ondorengo kategoriak ezartzen dira:

- Babes bereziko eremua: Fauna, flora eta oreka ekologikoa babesteko aukera ematen duten lurrak dira. Baso natural eta semi-naturalak eta lehentasunezko interes komunitarioko habitatak dira zehazki kategoria honetan sailkatzen direnak
- Nekazaritza-abeltzaintza eremua:

    -Balio estrategiko altua: Laborantzarako lur estrategikotzat kontsideratuak dauden lurrak dira. Hori dela eta, bere mantenua eta zaintza lehentasunezkoak dira eremu hauetan beste erabileren aurrean.

    -Trantsiziozko Landa Paisaia: Nekazaritza eta abeltzaintzara zuzendutako malda ertaineko lurrek osatzen dute. Lursail hauek belardiez eta zuhaitz masa txikiez osatuta daude. Balio estrategiko altua duten lurrekin edo baso eremuekin kontaktuan daude, orokorrean, hauetako joera batera bideratuak.

- Basoa: Orokorrean basoez osatuta dagoen lur eremua. Basoaren balioa zaindu eta sustatu nahi den lur saila.

- Ibai ibilgua eta bere ertzak babesteko eremua: Ibai ibilgua eta bere babeserako ertzak osatzen duten eremua. Lur ez urbanizagarrian kokatzen diren ibaiaren zatiak, kanpo utziz hiri lurra eta lur urbanizagarria. Ertzak ibaiaren mailaren araberako babes tartea dute, Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak agintzen duen moduan.

- Ingurumen hobekuntzarako eremua: Landaredi inbaditzaileak nabarmentzen diren eremuak eta lurren higadura handia behatzen den lursailak.

- Sistema orokorra: Dotazio erabilerarako zuzendutako lurrak, hau da, udalerriko biztanleei zerbitzua emateko eremu libreak, ekipamendu kolektibo publikoak, ekipamendu kolektibo pribatuak eta komunikazio sistemaren azpiegitura orokorrak osatzen duten eremua.

Kategoria hauetaz gain, hiri antolamentuaren barruan baldintzatzaile gainjarriak ezartzen dira:

Baliabide natural estartegikoak:

- C.1. Babestutako Eremu Naturalak
    - C.1.a. Aralar Parke Naturala
    - C.1.b. Kontserbazio Bereziko Eremua (Red Natura 2000)
- C.2. Fauna Babesteko Eremuak
- C.3. Onura Publikoko Mendia
- C.4. Interes Geologikoko Eremuak
- C.5. Korridore Ekologikoak
- C.6. Paisaia Babesteko Eremuak
- C.7. Kultur ondarea

Ingurumen arriskuak:

C.8. Uholde arriskua duten eremuak. Birgertatze aldiak.
C.9. Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak
C.10. Higadura arriskua duten eremuak
C.11. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak
C.12. Eremu akustikoak

Lur ez urbanizagarrian, kategoriak eta baldintzatzaile gainjarriak ezartzeaz gain, San Martin ermitaren inguruan proposamen estrategiko bat bultzatzen du dokumentu honek, aurreko ataletan alternatiba bakoitzeko deskribatzen den moduan. Laburbilduz, 7 hekatareako Landa-Nukleo bat proposatzen da, eta bestalde, gaur egun sistema orokorra dagoen eremuan kanpamentu gune bat ezartzeko aukera aztertzen da.

## 4.6. ALTERNATIBEN PROPOSAMEN NAGUSIEN LABURPENA

Ondorengo taulan alternatiba bakoitzeko hiri lurrean eta lur urbanizagarrian aurreikusten diren jarduerak biltzen dira, eta lur ez urbanizagarriari dagonionez, San Martin esparruko proposamenak ere agertzen dira.

| Jarduera | Alternatibak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 0 | 1 | | 2 | | 3 | |
| | Prop. | Prop. | % | Prop. | % | Prop. | % |
| **Hiri lurraren azalera ($m^2$)** | **228.971** | **271.763** | **119%** | **276.348** | **121%** | **263.048** | **115%** |
| **Lur urbanizagarriaren azalera ($m^2$)** | **90.881** | **72.549** | **80%** | **66.167** | **91%** | **66.784** | **79%** |
| **Bizitegi erabilera** | | | | | | | |
| Azalera $m^2$(s) | 143.069 | 135.749 | **95%** | 135.517 | **95%** | 129.232 | **90%** |
| Etxebizitzen kopurua | 183 | 100 | **55%** | 126 | **69%** | 94 | **51%** |
| **Jarduera ekonomikoak** | | | | | | | |
| Azalera $m^2$(s) | 112.706 | 103.198 | **92%** | 99.600 | **88%** | 90.440 | **80%** |
| Proposatutako eraikigarritasuna $m^2$(t) | 16.848 | 16.004 | **95%** | 16.767 | **100%** | 13.767 | **82%** |
| **Ekipamenduak** | | | | | | | |
| Azalera $m^2$(s) | 9.862 | 18.194 | **184%** | 20.719 | **210%** | 14.916 | **151%** |
| Proposatutako eraikigarritasuna $m^2$(t) | 3.820 | 3.614 | **95%** | 5.101 | **134%** | 3.601 | **94%** |
| **Eremu libreak** | | | | | | | |
| Azalera $m^2$(s) | 3.841 | 31.797 | **828%** | 25.307 | **659%** | 32.583 | **848%** |
| **Azpiegitura eta zerbitzuak** | | | | | | | |
| Azalera $m^2$(s) | 39.382 | 45.290 | **115%** | 47.321 | **120%** | 47.326 | **120%** |
| **Lur ez urbanizagarria** | | | | | | | |
| San Martin landa-nukleoa $m^2$(s) | Ez | 69.469 | | 69.469 | | Ez | |
| S.O. Eremu libreak $m^2$(s) | 30.243 | 30.345 | | Ez | | Ez | |
| S.O. Ekipamendu komunitarioak $m^2$(s) | 1.705 | 1.705 | | 1.705 | | 1.705 | |
| Kanpamentu turistikoa (camping) $m^2$(s) | Ez | Ez | | 30.345 | | 30.345 | |

# 5. LURRALDEAREN INGURUMEN AZTERKETA

Atal honek Amezketako udalerriaren ingurune fisikoaren karakterizazio orokorra era xehatuan jasotzen du. Hemen adierazten den informazioak 2017ko ekainean egin zen ingurumen diagnostikoa izan du oinarri.

## 5.1. PLANAREN JARDUN ESPARRUA ETA KOKAPENA

Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren jarduera-esparrua Amezketako udalerri osoa da, 20,58 $km^2$ inguruko azalera duena. 30TWN77 eta 30TWN76 10x10 km-ko UTM laukietan aurkitzen da.

Amezketako udalerria Gipuzkoako hego-ekialdean kokatzen da, Tolosaldeako eskualdean. Iparraldean Orendain eta Alegiako udalerriekin partekatzen ditu mugak Amezketak; mendebaldean Abaltzisketarekin egiten du muga; hegoaldean Enirio-Aralarrekin; eta ekialdean, berriz, Tolosako Bedaio auzoarekin. Bertara iristeko bi bide daude, Alegiatik edo Abaltzisketatik, udalerriaren ipar-mendebaldea zeharkatzen duen GI-2133 errepidearen bitartez; errepide honetatik beste bi ateratzen dira: GI-3711, Bedaio aldera doana eta GI-4081, hirigunearen ekialdeko barianteari dagokiona.




5. *irudia:* Amezketako udalerriaren kokapena

## 5.2. OROGRAFIA[1,2]

Amezketa orografia malkartsuko udalerria da: Hegoaldean Aralarko Parke Naturalaren mugapeko altitude handieneko lurrak barneratzen ditu, Larrunarri edo Txindoki mendiko gaina delarik udalerriko puntu altuena (1342 m), udalerriko; iparraldean berriz, Amezketa errekaren inguruan aurkitzen dira altitude txikieneko lurrak. Herrigunea 200 m inguruko altitudean kokatzen da, aipatutako errekaren goi-ibarrean.

Udalerriko orografia hobeto irudikatzeko, bere azalera lurzoruak duen maldaren arabera sailkatu eta malda-tarte bakoitzaren azalera kalkulatu da:

[1] Geoeuskadi. Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura.
[2] Gipuzkoako Foru Aldundiko LIDAR datuak.

| Malda tardea | Azalera (ha) | Udalerriko zenbatekoa |
|---|---|---|
| <%5 | 19,54 | %0,95 |
| %5-10 | 37,98 | %1,85 |
| %10-20 | 147,53 | %7,17 |
| %20-30 | 314,58 | %15,28 |
| %30-50 | 848,19 | %41,21 |
| %50-100 | 636,04 | %30,90 |
| >%100 | 54,41 | %2,64 |




6. irudia: *Amezketako orografia: malda tarteak.*

## 5.3. EZAUGARRI GEOLOGIKOAK[3]

Amezketako udalerria Euskal Arkuko arro geologikoaren barruan aurkitzen da. Ikerketa eremua honako gai litologiko hauek osatzen dute, udalerrian hartzen duten azaleraren arabera, handienetik txikienera ordenatuak:

| Unitate litologikoak | Garaia | Iragazkortasuna | Azalera |
|---|---|---|---|
| Marga gris ilun eskistotsuak kararri hareatsuzko tarteketarekin | Goi-Kretazikoa | txikia, pitzaduragatik | % 66,6 |
| Kararri urgoniar masiboak edo geruzapen urrikoak | Behe-Kretazikoa | ertaina, pitzaduragatik | % 26,8 |
| Lutita beltz karetsuak, harearrizko pasaguneak | Kretazikoa | txikia, porositateagatik | % 4,2 |
| Margak eta margakararri grisak; marga hareatsuak | Behe-Kretazikoa | txikia, pitzaduragatik | % 1,5 |
| Labaindutako dolomia koniaziarreko blokeak | Behe-Kretazikoa | txikia, pitzaduragatik | % 0,8 |
| Lutita karetsu grisak eta marga hareatsuak | Behe-Kretazikoa | txikia, pitzaduragatik | % 0,1 |

[3] Euskal Herriko Mapa Geologikoa (1:200.000), 1991. Energiaren Euskal Erakundea (EVE).

Bestalde, EAEko interes geologikoko lekuen Inbentarioan 4 elementu aurki daitezke, Amezketako udalerriko mugen barnean osotasunean zein zati bateak soilik. Honako hauek dira, mendebaldetik ekialdera:

| Interes geologikoko elementua | Interes zientifikoa | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Geomorfologikoa | Hidrogeologikoa | Tektoniko/ estrukturala | Estratigrafikoa | Paleontologikoa |
| Txindokiko tontorrak eta kareharriak | oso altua | | altua | oso altua | |
| Zazpiturrietako ur-begia | | oso altua | | | |
| Arritzagako sakaneko ebaki Jurasiko-Urgondarra | | | altua | altua | ertaina |
| Arritzagako haran glaziarra eta morrenak | oso altua* | | | | |

*Ezagutzen den EAEko glaziar-aztarna bakarra da.

Nabarmentzekoak dira, halaber, bakanak izateagatik, Arritzagako sakanean kokaturiko kobre-meatzeak: alde batetik, mineral-hobiei dagokienez interes zientifikoa daukate, eta bestetik, interes ekonomikoa izan dute iraganean (erauzketa) eta meatze-ondarea osatzen duten meatzeetako aparatuak eta eraikinak nahiko ondo kontserbatuta daude.




7. irudia: *Amezketako ezaugarri geologikoak.*

## 5.4. HIDROLOGIA

Sare hidrografikoa[4]

Ibai, erreka eta errekasto ugarik zeharkatzen dituzte Amezketako lurrak. Ur-ibilgu guztien arten nagusienak dira: Amezketa erreka eta honen isurle diren Bedaio, Elorrain eta Arritzaga errekak.

[4] Ur Agentziaren Espazio Datuen Azpiegitura.

Udalerriko sare hidrografiko osoa Oriako Unitate Hidrologikoko Amezketa izeneko lurrazaleko ur-masaren barnean aurkitzen da, Amezketa eta Bedaioko azpiarrotan banatuta. Uraren Esparru Zuzentaraua ezartzeko txostenen arabera, unitate hidrologiko hau EAE eta Nafarroa artean gertatzen denez, Erkidego Arteko Arroen Mugapean (Kantauri Ekialdearen Mugape Hidrografikoan) daude eta Estatua da erakunde eskuduna; Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren bitartez kudeatzen da.




8. irudia: Amezketako sare hidrografikoa.

Lurrazaleko uren kalitatea[5,6,7]

Amezketa errekak antropizazio handia jasan du eta egun, herriguneko urbanizazio eta industriek batez ere, ibaiaren lurraldea eta uren kalitatea murrizten dute.

Ur-Agentziak duen EAEko uraren egoeraren jarraipenerako sareak bi estazio dauzka Amezketako ibai arroan udalerriko uren kalitatea neurtzeko: Amezketako hirigunetik ibaian gora Loidi errekan OAM055 estazioa, eta hirigunetik ibaian behera, Amezketa errekan Alegian OAM117 estazioa. Eskuragarri dauden azken txostenek ematen dituzten datuen arabera, lehenengo estazioaren egoera ekologikoa urtero ona izan da; aldiz, bigarrenarena, 2013 eta 2014. urteetan neurrizkoa izan zen, kutsadura organikoaren eragina nabaritzen delarik baita urte onetan ere. Hau hala da izan ere hondakin uren tratamendurik ez baitago Amezketako udalerrian.

| Estazioak | Egoera ekologikoa | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 |
| OAM055 | ona | ona | ona | ona |
| OAM117 | ona | neurrizkoa | neurrizkoa | ona |

[5] Anbiotek & Cimera, 2016. Red de seguimiento del estado biológico de los ríos de la CAPV. Informe de resultados. Campaña 2015. URA.
[6] LTL & Ekolur SLL, 2016. Red de seguimiento del estado químico de los ríos de la CAPV. Campaña 2015. URA.
[7] Ekolur SLL, 2016. Gipuzkoako ibaien uren kalitatearen azterketa. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, halaber, ibaien emariaren eta uraren kalitatearen jarraipena egiteko sare propioa dauka, aforaleku iraunkorrez eta aldizkako laginketa puntuez osatuta. Sare honek aldizkako laginketa puntu bat dauka Amezketan Bedaio errekak Amezketa errekarekin bat egiten duen puntutik ibaian gora (AME08200). 2015. urtean arrain-ale ugariren heriotza eragin zuen isurketa baten ondoren, azterketa egin zen eta nahiz eta emaitza fisiko-kimikoak egokiak izan eta ondorioz izokinkideentzako gaitasuna azalduz, emaitza biologikoek arazoak azaldu zituzten, egoera eskasa behatu baitzen, amuarrainaren eta aingiraren presentzia oso murriztuarekin.




*9. irudia: Amezketako lurrazaleko uren kalitatearen jarraipenerako sareen laginketa puntuak.*

Lurrazpiko urak[8]

Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako ingurumen helburuen artean lurrazpiko urak babestu eta hauengana kutsadurarik ez sartzeko neurriak hartzea dago. 5. eta 6. artikuluei buruzko txostenak adierazten duenez, aztergai dugun esparrua lurpeko bi ur-masen gainean kokatzen da (6. irudia): Arama (ES013S000011) edo Bizkaiko sinklinorioa, Oizko sinklinorioaren domeinu higrogeologikoaren barnean dagoena eta Aralar (ES013S000017) Hegoaldeko antiklinorioaren domeinuaren barnean dagoena.

Ur Agentziak lurpeko ur masen egoera kontrolatzeko bi estazio dauzka Amezketan (6. irudia): SA12, foru motatakoa, eta SC19, kimiko eta plagiziden kontrolerakoa. Eskuragarri dauden datuen arabera, lurpeko bi ur-masen egoera ona da.

[8] Ur Agentziaren Espazio Datuen Azpiegitura.




*10. irudia: Amezketako lurpeko ur-masak eta hauen kontrolerako estazioak.*

Iturburuak eta lur gaineko hartuneak[9]

Amezketako udalak 5 iturri dauzka kartografiatuta udalerrian: Lapursasiko iturria, Kardelu edo Kardeleko iturria, Ormatzako iturria, Urtzabal eta Zazpiturrieta. Azken hau, Eremu Babestuen Erregistroan azaltzen da, Beatzako iturburuarekin batera. Gainera, aipatu erregistro honetan, lur gaineko hiru hartune identifikatzen ditu aztergai dugun esparruan:

| Izena | Mota | Erabilera |
|---|---|---|
| Zazpiturrieta | iturburua | erabilera gabe* |
| Beatza | iturburua | hiri-hornidurarako aldizkako erabilera |
| Mugitza | lurrazaleko hartunea | hiri-hornidura |
| Papel Aralar, SA | lurrazaleko hartunea | industria erabilera |
| Udal depositoa | lurrazaleko hartunea | hiri-hornidura |

Argitu behar da, Eremu Babestuen Erregistroan, Zazpiturrietako iturburuari erabilerarik egozten ez bazaio ere, hartune bat badagoela, Zazpiturrietako zentral hidroelektrikoari zerbitzu ematen diona. Zentral honek Elorraingo errekastotik ere hartzen du.

[9] Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa 2015-2021.




*11. irudia: Eremu Babestuen Erregistroak Amezketan kokatzen dituen iturburu eta lurgaineko hartuneak.*

## 5.5. EDAFOLOGIA ETA AHALMEN AGROLOGIKOA[10,11]

Litologia, orografia eta klima bezalako eragileek lurzoru motak baldintzatzen dituzte. Udalerriko lurzoruak lubisol motatakoak dira (12. irudia), hau da, altitude ertainetako malda dagoen tokietan eta urtaro heze eta lehorrak dituzten tokietan garatzen direnez lurrazaleko horizonteen eta lurrazal azpikoen artean egitura-kontrastea erakusten dute, behekoak buztin alubialez aberastuta baitaude.

Ezaugarrien arabera, azpimota ezberdinak bereiz daitezke Amezketan: lubisol ortikoa da udalerriko azalera handiena hartzen duena eta, azido edo deskarbonatatua, ondo garatuta dago eta ezaugarri nagusia oso harritsua izatea du. Erabilera ahalmenaren aldetik lurzoru hauek erabilgarritasun oso urritik oso altura doaz, maldaren arabera gehienbat (zenbat eta malda handiagoa, orduan eta sakonera eta erabilgarritasun mugatuagoa).

[10] Geoeuskadi. Datu Espazialen Azpiegitura. Eusko Jaurlaritza.
[11] Gipuzkoako Mota Agrologikoen Mapa, 1987. Gipuzkoako Foru Aldundia.




12. *irudia: Amezketako lurzoru motak.*

Honen harira, Gipuzkoako Mota Agrologikoen Maparen arabera, Amezketan 5 lurzoru mota ezberdintzen dira, maldaren eta, ondorioz, ahalmen agrologikoaren arabera. Nekazaritza eta basogintzarako Lurralde Arloko Planak, Balio Estrategiko Altukotzat markatuta ditu hain zuzen ere, II. mota agrologikoaren barnean sailkatutako lur gehienak (Amezketa eta Bedaio erreketako alubialak) gehi San Martingo muinoa.




*13. irudia: Amezketako lurzoruen ahalmen agrologikoa.*

## 5.6. LANDAREDI ETA LURZORUAREN ERABILERAK[12]

Landaredi potentziala eta lurzoruaren erabilera

EAEko Landaredi Sailaren Maparen arabera Amezketako udalerriko landaredi potentziala, hau da, gizakiaren eraginik gabe ustez garatuko litzatekeena, honako hau izango litzateke:

- Haltzadi kantauriarra: erreka ertza eta ibar nagusietan.
- Harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa: altitude baxueneko mendi-hegaletan, lurraldearen zati handiena hartuz.
- Pagadi azidofiloa: Pelotaleku izeneko parajearen inguruan.
- Pagadi kaltzikola edo eutrofikoa: hegoaldeko zatian, Aralarko mendi-hegaletan.
- Karaitzetako komunitate-konplexua: altitude handieneko eremuetan, udalerriko hegoaldeko mugetan kokatzen direnak.

[12] Natura ondarea eta biodibertsitatea. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.




*14. irudia: Amezketako landaredi potentziala.*

Egun aurkitzen dugun landarediak, ordea, gizakien jardueren ondorioz eraldaketa garrantzitsuak jasan ditu, eta nahiz eta basoek udalerriaren azaleraren % 62a estaltzen duten, ez da beti horrela izan: Hurrengo irudian ikus daitekeenez, 40ko hamarkadan zuhaizti eta basoen hedadura askoz txikiagoa zen, udalerriko azaleraren % 30era ere iristen ez zelarik; aldiz iratzediek azalera askoz handiagoa hartzen zuten lehen.

Gainera, gaurko baso hauen ia erdia landaketarako formakuntzei dagokio eta autoktonotzak jo dezakegun basoari dagokionez, landaretza potentzialarekin bat datozen harizti, pagadi eta haltzadi kantauriarraz osatuta dago, azken honek jasan duelarik narriadura handiena, ur-ibilgu nagusien eta hau ibarren artifizializazioaren ondorioz. Aipatzekoa da 40ko hamarkadako basoen estaldurak (14. irudia), 'bertako espezieetako baso eta heskaiak' izeneko unitateak gaur egun hartzen duen azalerarekin (15. irudia) bat datorrela hein handi batean; pentsa daiteke beraz, egungo baso autoktono hauek, gutxienez aurreko mendeko lehen erditik hona mantendu badira, heldutasun maila interesgarria lortuko zutela.

Hiritartutako eremuak hirigunea gehi sakabanatuta dauden borda eta baserriek osatzen dute; hauen inguruan pilatzen dira lorategi, baratza eta fruitondo gehienak. Larre eta belazeek udalerriaren herena hartzen dute eta antropizazio maila txikieneko eremuak Amezketan, altitude handieneko lurrekin bat datoz, mendi goialdeko harkaizti eta hartxingadiak batez ere.




*15. irudia: Basoen estalduraren bilakaera Amezketan 40ko hamarkadatik gaur egunera arte.*




*16. irudia: Lurzoruaren erabilera nagusiak Amezketako udalerrian.*

16. irudian hurrengo taulan agertzen diren unitateak kartografiatuta agertzen dira:

| Landaredi unitateak | Azalera (ha) | Udalerriaren zenbatekoa |
|---|---|---|
| Bertako espezieetako baso eta heskaiak | 688,71 | %33,46 |
| Larre eta belazeak | 658,15 | %31,97 |
| Koniferoen edo hostozabalen landaketak | 584,54 | %28,40 |
| Harkaizti eta hartxingadiak | 48,74 | %2,37 |
| Hiritartutako eremuak eta errepideak | 38,61 | %1,88 |
| Iratzedi, sasidi eta sastrakadiak | 28,51 | %1,38 |
| Lorategi, baratze eta frutarbolak | 10,50 | %0,51 |
| Ur-ibilguak | 0,51 | %0,02 |
| GUZTIRA | 2058,27 | %100 |

Kontserbazio interesa duen landaredia[13]

Eusko Jaurlaritzako EAEko habitat mapak jasotzen duenez Amezketan Europar Batasunaren intereseko habitatak (interes komunitarioko habitatak) estalitako 680 ha inguru dago, udalerriko azalera osoaren herena, gutxi gora-behera. Hauetako 10 habitat mota ezberdin identifilatu dira, horietatik 4 lehentasunekotzat jotzen direlarik (kodean izartxoa dutenak):

| Kodea | Habitataren izena | Azalera (ha) | Udalerriaren zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| 4030 | Txilardi lehor europarrak | 0,27 | %0,01 |
| 6170 | Kare-belardi alpetar eta subalpetarrak | 122,13 | %5,93 |
| 6210* | Belardi lehor seminaturalak eta substratu kalkareotako sastraka-eiteko formazioak (*Festuco-Brometalia*) *orkidea garrantzitsuekin | 30,17 | %1,46 |
| 6230* | *Nardus* formazio belarkarak, espezie ugarikoak, zonalde menditarreko substratu silizeoen gainean | 44,34 | %2,15 |
| 6510 | Altuera txikiko sega-larre txiroak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) | 397,70 | %19,32 |
| 8130 | Mendebaldeko Mediterraneoko lur-jausi termofiloak | 4,26 | %0,21 |
| 8210 | Landaredi kasmofitikoa duten kareharrizko malkar arrokatsuak | 54,88 | %2,66 |
| 91E0* | Haltzadien eta lizardien baso alubialak (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*) | 17,42 | %0,84 |
| 9120 | Pagadi azidofilo atlantikoak, *Ilex* eta batzuetan *Taxus* espezieetako oihanpea dutenak | 1,65 | %0,08 |
| 9180* | Malda, lur-jausi edo amildegietako basoak (*Tilio-Acerion*) | 7,76 | %0,38 |
| **GUZTIRA** | | **680,58** | **%33,07** |

Bestalde, Europako Arteztarauak hariztiak eta bestelako hostozabal interesdunak garrantzi komunitarioko habitat gisa hartzen ez baditu ere, balio ekologiko handiko formazioak dira, eta ez dute oso azalera handia Gipuzkoako lurraldean; izatez, asko murriztu dira beste formazio batzuen alde (larreak, baso-berritzeak, e.a.). EAEko natura babesten duen 2/2013 Legeak lurraldean dauden bertako baso-masak babesteko interesa nabarmendu du. Hori dela eta, formazio horiek, guztira 660 ha inguruko azalera hartzen dutelarik, kontserbatzeko interesa duten landaredi eta habitaten artean hartzen dira.

[13] Europako Habitat Naturalen eta Basafauna eta Basafloraren Kontserbaziorako 92/43/CEE Arteztaraua (Habitat Arteztaraua).




*17. irudia: Landaredi babestua Amezketako udalerrian. Habitaten kodeek adierazten dutena 'Kontserbazio interesa duen landaredia' atalean agertzen da.*

Flora espezie mehatxatuak[14]

EAEko Flora Baskularraren Zerrenda Gorrian azaltzen diren espezieen artean, Amezketako udal udalerrian 17 espezie hauek aipatzen dira:

| Espeziea | Kategoria |
|---|---|
| *Aconitum variegatum ssp. pyrenaicum* | kaltebera |
| *Armeria puvinervis ssp. orissonensis* | interes berezikoa |
| *Arnica montana* | kaltebera |
| *Carlina acanthifolia ssp. cynara* | interes berezikoa |
| *Carlina acaulis ssp. simplex* | bakana |
| *Cicerbita plumieri* | bakana |
| *Crepis pyrenaica* | bakana |
| *Ilex aquifolium* (gorostia) | interes berezikoa |
| *Lathyrus vivantii* | galtzeko arriskuan |
| *Narcissus asturiensis* | interes berezikoa |
| *Paris quadrifolia* | bakana |
| *Pedicularis foliosa* | bakana |
| *Taxus baccata* (hagina) | interes berezikoa |
| *Tofieldia calyculata* | kaltebera |

[14] Ihobe, 2010. EAEko Flora Baskularraren Zerrenda Gorria. Eusko Jaurlaritza.

| Espeziea | Kategoria |
|---|---|
| *Trollius europaeus* | kaltebera |
| *Veratrum album* | interes berezikoa |
| *Viola bubanii* | bakana |

Gorostia eta hagina izan ezik, landare belarkarak dira gehienak, altitude handietan agertzen direnak eta horregatik Amezketan, udalerriaren hegoaldean agertzen dira. Espezie hauek ageri diren UTM 1x1 km-ko laukiak Batasunaren intereseko habitatekin batera 17. irudian adierazten dira.

## 5.7. INTERESKO FAUNA[15,16]

Amezketako naturaltasunak eta habitat aniztasunak fauna aberastasunean islada dauka eta udalerrian aurki daitezkeen animalien zerrenda oso luzea da. Horregatik babes berezia daukaten espezieetara mugatuko gara ondoren.

<u>Katalogatutako espezieak</u>

Eusko Jaurlaritzako datu baseak, Amezketako udalerriaren gehiengoa barnean hartzen duen 10x10 km-ko UTM laukian (30T WN76) EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan agertzen diren 39 espezieen aipamenak jasotzen ditu:

| Ezpeziea | Izen arrunta | Arrisku maila[1] | Habitat nagusia |
|---|---|---|---|
| ANFIBIOAK | | | |
| *Ichtyosaura alpestris* | uhandre alpetarra | K | hezeguneak |
| HEGAZTIAK | | | |
| *Accipiter gentilis* | aztorea | B | basoa |
| *Accipiter nisus* | gabiraia | IB | basoa |
| *Alcedo atthis* | martin arrantzalea | IB | ur-ibilguak |
| *Aquila chrysaetos* | arrano beltza | K | harkaiztiak |
| *Bubo bubo* | hontza handia | B | harkaiztiak |
| *Caprimulgus europaeus* | zata arrunta | IB | landazabala, sastrakadia |
| *Cinclus cinclus* | ur-zozoa | IB | ur-ibilguak |
| *Circaetus gallicus* | arrano sugezalea | B | sastrakadia |
| *Circus cyaneus* | mirotz zuria | IB | sastrakadia |
| *Corvus corax* | erroia | IB | orotarikoa |
| *Dendrocopos minor* | okil txikia | IB | ibar-basoa, landazabala |
| *Dryocopus martius* | okil beltza | B | basoa |
| *Falco subbuteo* | zuhaitz-belatza | B | basoa |
| *Gyps fulvus* | sai arrea | IB | harkaiztiak |
| *Gypaetus barbatus* | ugatza | GA | harkaiztiak |
| *Hieraaetus pennatus* | arrano txikia | B | basoa |
| *Jynx torquilla* | lepitzulia | IB | landazabala |
| *Monticola saxalitis* | harkaitz-zozo gorria | IB | harkaiztiak |
| *Neophron percnopterus* | sai zuria | | harkaiztiak |
| *Pernis apivorus* | zapelaitz liztorjalea | B | basoa |
| *Phoenicurus phoenicurus* | buztangorri argia | B | basoa |

[15] Natura ondarea eta biodibertsitatea. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.
[16] www.ornitho.eus

| Ezpeziea | Izen arrunta | Arrisku maila[1] | Habitat nagusia |
|---|---|---|---|
| *Phylloscopus trochilus* | txio horia | B | landazabala |
| *Prunella collaris* | mendi-tuntuna | IB | harkaiztiak |
| *Pyrrhocorax graculus* | belatxinga mokohoria | IB | harkaiztiak |
| *Pyrrhocorax pyrrhocorax* | belatxinga mokogorria | IB | harkaiztiak |
| *Regulus regulus* | mendi-erregetxoa | IB | basoak |
| *Saxicola rubetra* | pitxartxar nabarra | IB | landazabala |
| UGAZTUNAK | | | |
| *Eptesicus serotinus* | baratz saguzarra | IB | harkaiztiak, eraikuntzak |
| *Felis silvestris* | basakatua | IB | basoa |
| *Galemys pyrenaicus* | muturluze piriniarra | GA | ur-ibilguak |
| *Mustela lutreola* | bisoi europarra | GA | ur-ibilguak |
| *Mustela putorious* | ipurtatsa | IB | ur-ibilguak |
| *Myotis daubentonii* | Daubenton saguzarra | IB | basoa |
| *Myotis emarginatus* | Geoffroy saguzarra | K | landazabala |
| *Myotis myotis* | arratoi-belarri handia | GA | landazabala, basoa |
| *Nyctalus leisleri* | gau saguzar txikia | IB | basoa |
| *Rhinolophus hipposideros* | ferra-saguzar txikia | K | basoa, kobazuloak |

[1]GA: Galtzeko arriskuan, K:Kaltebera, B: Bakana, IB: Interes Berezikoa.

Aurreko taulan agertzen denez, aipatutakoen artean 4 espezie aurkitzen dira 'galtzeko arriskuan' kategorian sailkatuta, 4 espezie 'kaltebera' kategorian, 9 espezie 'bakana' kategorian eta 20 'interes bereziko'-tzat jotzen dira. Zerrenda honen zati garrantzitsu bat harkaiztiei lotutako espezieek osatzen dute; basoei lotutakoak ere ugariak dira.

Puntu Sentikorrak, Interes Bereziko Guneak eta Lehentasunezko Banaketa Eremuak

EAEko III Ingurumen Esparru Programak (2011-2014) ezartzen zuen "*mehatxupeko flora eta fauna espezieen lehentasunezko banaketa guneak, garrantzi bereziko eremuak eta gune ahulak zaintzea*" beharrezkoa dela, "*kudeaketa plana duten ala ez kontuan izan gabe*". Animaliei dagokienez, zera esan dezakegu Amezketako kasuan:

Udalerriaren hegoaldeko zatian mehatxupeko faunaren hainbat puntu sentikor, lehentasunezko banaketa eremu eta interes bereziko gune pilatzen dira, 18. irudian azaltzen den bezala. Azpimarratzekoa da, EAEan Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planaren arabera, Aralarko eremua ugatzaren, sai-zuriaren eta sai-arrearen interes bereziko eremua eta espezie hauek elikatzeko babesgunea dela.




18. irudia: *Mehatxupeko faunaren puntu sentikorrak (PS), lehentasunezko banaketa eremuak (LBE) eta interes bereziko eremuak (IBE) Amezketan.*

<u>Fauna urtarrarentzako oztopoak</u>[17]

Amezketako ur-ibilguetan ibai-faunaren mugimenduentzako oztopo izan daitezkeen zenbait presa daude, gehienak erroten jarduerari lotuak. Gipuzkoako ibaietako oztopoen inbentarioan Amezketako udalerrian 8 identifikatzen ditu, 0,8-7,0 metroko altuera daukatenak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ibaien Konektibitatea Hobetzeko Plan Zuzendariak ezartzen du "*Oriako Unitate Hidrologikoan Amezketa, Abalotz eta Asteasu erreketan esku-hartzeak baztertzen dira, hiru oztopo erabiltzen diren errotak dira (Etxeberri, Olako y Ugarte), eta gainera, ez da oso funtzionala 15-20 azpila mailaka jartzea oztopo gainditzeko bata bestearengandik kilometro bat baino gutxiagora kokatuta dauden oztopo kontsekutiboetan*".

[17] Ekolur SLL, 2006. Oria arroaren ardatzeren eta ibaiadar nagusien oztopoen inbentarioa. Gipuzkoako Foru Aldundia, 138 pp.




19. *irudia: Ur faunarentzako oztopoen kokapena Amezketako ibilguetan.*

## 5.8. INTERES NATURALISTIKOKO EREMUAK

### Mendi publikoa[18]




20. *irudia: Mendi Publikoaren banaketa Amezketako udalerrian.*

[18] Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura. Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Amezketako hegoaldeko zatiko lurrak, Onura Publikoko Mendiak dira eta hauetatik 581,44 ha Amezketako Udalarenak dira, Gipuzkoako Foru Aldundiko datubasean 'Amezketako mendia' izenaz eta 2.008.1 kodeaz identifikatuta daudelarik (20. irudia).

Aralarko Parke Naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremua

1994. urtean Aralarko Parke Naturala izendatu zen 168/1994 Dekretuaren bitartez, bere "paisaiaren edertasunagatik eta flora zein faunaren berezitasun eta aniztasunagatik", Abaltzisketa, Amezketa, Ataun, Lazkao, Tolosa eta Zaldibiako udal mugarteetako eta Enirio-Aralar mankomunitateko lurrak hartuz.

22 urte beranduago, 2016. urtean, Habitat Arteztarauari (92/43/CEE) jarraiki, Aralarko Kontserbazio Bereziko Eremua (ES2120011) izendatu zen, Parke Naturalaren ia mugaketa berdinarekin, 84/2016 Dekretuaren bitartez. Horrela, naturagune hau Natura 2000 Sarea, Europa mailako biodibertsitatearen kontserbaziorako sare ekologikoaren parte da orain (21. irudia).




21. *irudia: Amezketako interes naturalistikoko eremuak.*

EAEko Korridore Ekologikoen Sarea[19]

Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearen proposamenak (IKT, 2005) Amezketako udalerria ia osoa Aralar nukleo gunearen eta honen moteltze eremuaren barnean marrazten du, iparraldeko muga eta ekialdeko zati batean 'Ernio-Gatzume_Aralar_Izarraitz, R18: Aiako Harria-Aralar' lotura-korridorea ere irudikatzen duelarik.

Bestalde, sare honek lotura ekologikorako eremu kritiko edo tentsio-gune bat antzematen du udalerriko iparraldean, GI-2133 errepideari dagokiona, izan ere 16 eta 17 puntu kilometrikoen artekoa (Alegiko mugatik Ugarte auzorainokoa) harrapaketa kontzentrazio tarte bezala identifikatu baita.

[19] Gurrutxaga, M. 2005. Red de Corredores Ecológicos de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Eusko Jaurlaritza, IKT S.A.




22. *irudia: Amezketako udalerria EAEko Korridore Ekologikoen Sarearekiko.*

## 5.9. PAISAIA[20]

Amezketa landa-izaerako herria da eta bere paisaian, mendi, baso eta larreen mosaikoa da nagusi. Udalerrirako sarrera den Alegiko errepidetik hurbilduta eta iparraldeko lur basotsuen orografia itxia gaindituta, Txindokiko presentzia erabatekoa da herrigunera hurbildu ahala.

Euskadiko datu espazialen egiturak, bi paisaia unitate bereizten ditu Amezketako udalerrian, eremu geomorfologikoaren arabera: flubiala, gehienbat altitude txikieneko lurrak barneratzen dituena eta karstikoa, hegoaldeko mendi-aldeari dagokiona (23. irudia).

'EAEko Paisaiaren Kartografia' (1990) eta bere balioespenean (1993) EAEko ikus-arroak zedarritu ziren. Ikus-arroak zonalde erlatiboki homogeneoak dira ikusmen irizpideei dagokienez eta elkarren artean interbisibilitate erlazioa mantentzen dutenak. Amezketako lurrak 2 ikusmen-arrotan banatzen dira 'Amezketa' eta 'Bedaio' izenekoetan (23. irudia): biak balio oso altukotzat hartzen direnez EAEko Paisaia Berezi eta Nabarmenen Katalogoan sartuta daude.

Katalogo honen aurreproiektuaren lanketan kontuan hartu ziren ikusmen-eraginen artean, Amezketa zein Bedaio ikusmen-arroetan, harkaiztiak baino ez zituzten identifikatu ikusmen-inpaktua eragiten duen elementu bezala, inpaktu positiboa kasu honetan. Horretaz gain, bertako basoen estaldura eta larreez inguratutako tipologia tradizionaleko baserriak ere eragin positiboko elementu bezala hartu daitezke; bestalde, landaketa basoen ustiapenak, tipologia ez tradizionaleko etxebizitza eta bestelako eraikuntzak, papelera batez ere, eta tentsio altuko argindar-lineak inpaktu negatiboa eragiten dute (24. irudia).

[20] IKT SL & Paisaia, 2005. EAEko Paisaia Berezi eta Nabarmenen Katalogoa. Aurreproiektua. Eusko Jaurlaritza.




*23. irudia: Ikusmen arroak eta Amezketako paisaia unitateak.*






*24. irudia: Amezketako udalerrika ikusmen-inpaktu negatiboa eragiten duten zenbait elementu. Ezkerreko argazkia: argindar lineak eta atzean baso landaketak (mozketa dagokienean egingo dute eragin-negatibo handiena); eskubiko argazkia: papelera. 2017ko maiatzeko argazkiak.*

## 5.10. KULTUR-ONDAREA[21]

Eusko Jaurlaritzako Euskal Kultura Ondarearen Zentroak eskuragarri duen informazioa, Gipuzkoako Aldundiaren datuak eta Amezketako udalaren datuak erabili dira atala hau osatzeko. Udalerrian kultura ondarearen intereseko elementu ezberdinak agertzen dira:

[21] Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Eusko Jaurlaritza.

KATALOGATUTAKO ONDASUN ETA ELEMENTUEN ZERRENDA

- Babes erregimen zorrotza:

Argañaraserrota. Ola auzoa, 9.
Artolanea/Letradonea. Bartolome deuna kalea, 38.
Bartolome Deuna eliza. Elizkalea, 21B.
Errosarioko ama eliza. Joxean Tolosa kalea, 8.
Jauregiaundi baserria. Alegiko bidea kalea, 4.
Sagoetxe/Sarobetxea/Sautse baserria. Urkulaparte auzoa, 6.
Udaletxea. Fernando Amezketarraren plaza, 5.
Ugarteko errota. Zakel auzoa, 7.

- Oinarrizko babes erregimena:

Aierbenea. Errekalde kalea, 1.
Arantzastiko zubia
Arrieta baserria. Ola auzoa, 8.
Arritzagako meatzeak.
Artola baserria. Toledoaldea auzoa, 5.
Bernarats baserria. Zubillaga auzoa, 10.
Elizalde etxea. Elizkale, 19.
Etondo baserria. Egutera (Eutera) auzoa, 6.
Garagartzaenea. Elizkalea, 8.
Ierabizkar errota. Urtzabal auzoa, 2.
Juanlopitzenea. Bartolome deuna kalea, 37.
Karlosenea baserria. Ola auzoa, 7.
Lapatza baserria. Alegiko bidea kalea, 2.
Loidi baserria. Altunegi auzoa, 2.
San Martin ermita. Altunegi auzoa kalea, 17.
Toledogoena baserria. Toledoaldea (Tolo) auzoa, 8.
Tomasenea baserria. Altunegi auzoa, 19.
Torrea etxea. Elizkalea, 16.
Zabalbarrena baserria. Altunegi auzoa, 15.
Zentrala/Indarretxea. Urtzabal auzoa, 4.
Zubin/Zubirain baserria. Zakel auzoa, 4.
Zuriarraintxiki baserria. Larraitz bidea auzoa, 4.

- Interesezko beste elementuak (babes erregimenik gabe):

1 Zubia. Ierabizkar errota parean.
2 Zubia. Papelerako sarbide parean.

- GFAko ondare zerrendan agertzen direnak (AStan ez):

Aralar Paper Fabrika. Bartolome deuna kalea, 40.
Larrunarri pilotalekua. Fernando Amezketarraren plaza, z/g.
Loidiko zubia. Loidi baserritik gertu.

GUNE ETA ELEMENTU ARKEOLOGIKOAK

- A maila:

Agirrebarrena baserria. Toledoaldea auzoa, 3.
Agirregoena baserria. Toledoaldea auzoa, 4.
Argañarastorre. Ola auzoa, 5.
Artola baserria. Toledoaldea auzoa, 5.
Etxeberritxiki baserria.
Etxeberriaundi baserria. Altunegi auzoa, 6.
Etxaizbitarte baserria. Altunegi auzoa, 23.
Iraregi baserria. Urtzabal auzoa, 6.
Jauregiaundi baserria. Alegiko bidea kalea, 4.
Karrera baserria. Zubillaga auzoa, 1.
Lapatza baserria. Alegiko bidea kalea, 2.
Lizeaga baserria. Arrondo auzoa, 5.
Loidi baserria. Altunegi auzoa, 2.
Toledogoena baserria. Toledoaldea (Tolo) auzoa, 8.

Toledobarrena baserria. Toledoaldea auzoa, 7.
Ugarteaundi baserria. Joxean Tolosa kalea, 14.
Zabalbarrena baserria. Altunegi auzoa, 15.
Zabalgoena baserria. Altunegi auzoa, 11.
Zubin/Zubirain baserria. Zakel auzoa, 4.

- **B maila:**

Errosarioko ama eliza. Joxean Tolosa kalea, 8.
San Martin ermita. Altunegi auzoa kalea, 17.

- **C maila:**

Urdanaize azpi kobazuloa

- **D maila:**

Argañaraserrota. Ola auzoa, 9.
Ierabizkar errota. Urtzabal auzoa, 2.
Ugarteko errota. Zakel auzoa, 7.

- **SAILKATU GABE (EJko Arkeologia ondarean jasotakoak):**

Larrondo trikuarria
Urritza trikuarria

- **SAILKATU GABE (GFAko fitxetan jasotakoak):**

Arritzagako meatzeak
Larrunarri pilotalekua. Fernando Amezketarraren plaza, z/g.
Ormatza I trikuharria
Ormatza II trikuharria

- **Arau Subsidiarioetako I.05 planoan bai baina memorian agertzen ez direnak:**

Bartolome Deuna eliza. Elizkalea, 21B.
Ugartejauregi baserria. Joxean Tolosa kalea, 1, 5,7.




*25. irudia: Amezketako ondare kulturaleko elementuen kokapena.*

## 5.11. INGURUMEN-PROZESU ETA ARRISKUAK

### 5.11.1. UHOLDE ARRISKUA[22,23]

Kantauri ekialdeko Mugapen Hidrografikoaren eremuan uholdeei buruzko azterketa ugari egin dira. Egun 500 biztanle baino gehiagoko EAEko hirigune ia guztietako uholde-arriskuen mapak daude, etengabeko berrikusketari lotuta dauden arren. UR-Agentziak uholde-arriskuei buruz Amezketan jasotako datuak 26. irudian azaltzen dira. Bertan hiru arrisku kategoria ezberdin ezarri dira, 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldia duten uholde-orbanen arabera, eta baita, EAEko Ibai eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearena Arloko Planak ezarritako beste kategoria bat ere, 'lehentasunezko fluxu eremua' izena duena eta 10 urteko birgertatze-aldiko orbanarekin bat datorrena gutxi gora-behera.

LAP honek, uholdeen prebentzioari begira lurzoruaren erabileren eta jarduera hidrauliko eta hirigintzakoen antolamendua xedatzen du uholde-ibarraren eremu ezberdinetan: Irizpide orokor bezala, lehentasunezko fluxu-eremuetan hirigintzako aprobetxamendu berririk ez da onartuko. 100 urteko birgertatze-aldirako urperagarriak diren zabaldietan, landa-eremuetan eta gaur egun urbanizatuta ez dauden zonetan berezko uholdegarritasunarekin bateragarriak diren erabilerak baino ez dira jorratuko; dagoeneko urbanizatutako edota hirigintza aldetik neurri batean garatutako eremuetan, berriz, '*ahalegina egingo da lehendik dauden eraikinak eta hirigintzako erabilerak mantentzeko, eta neurri zuzentzaileak hartuko dira, uholde arriskuaren gainean jardun ahal izatearren'*. Zona hauetan saihestu egingo da, halaber, funtsezko azpiegitura publikoak ezartzea, eta hirigintzako garapen berriak baimendu ahal izango dira ahal delarik, 500 urteko errepika-denborako uholdearenetik gora.

Amezketan uholde orban hauek, Amezketa errekari gehienbat loturikoak, eremu hiritartuenekin bat egiten dute eta guztira 58,37 ha-ko azalera hartzen dute, hauetatik 10,53 ha 10 urteko birgertatze-aldiko eremuaren barnean daudelarik.




*26. irudia: Amezketako uholde arriskuko eremuak.*

[22] Ur Agentziaren Espazio Datuen Azpiegitura.

[23] Uholde-Arrisku Handiko Eremuen (U.A.H.E.) uholde-arriskugarritasun eta -arriskuaren mapak, 2014. UR-Agentzia.

### 5.11.2. AKUIFEROEN KUTSADURAREKIKO URRAKORTASUNA[24]

Eskura dagoen hidrogeologia informazioarekin, material litologikoen iragazkortasunari buruzkoaz baliatuta batez ere, esan daiteke udalerriaren hegoaldeak akuiferoak kutsatzeko arrisku handiko lurrak dauden bitartean, gainontzeko lurraldeak ezaugarri onuragarriak ditu akuiferoen urrakortasunari dagokionez (27. irudia).




*27. irudia: Akuiferoak kutsatzeko arriskua Amezketan.*

### 5.11.3. HIGADURA ARRISKUA DUTEN EREMUAK[25]

Higadura arriskua duten eremuak identifikatzeko Nekazaritza eta Basozaintzarako LPS-k 'higadura jasateko arriskua duten tokiak' kategorian dauden Amezketako eremuak, %50 gainditzen duten maldak eta geomorfologikoki ezegonkorrak diren lurrak (higadura aktiboko guneak, aireratze-orbanak eta gainazaleko irristatzeak) aukeratu dira.

Udalerriko orografia malkartsua dela eta, erdialdea kenduta, ia lurralde gehiena arrisku honen eraginpean dagoela esan daiteke, 28. irudian azaltzen den bezala.

### 5.11.4. KUTSATUTA EGON DAITEZKEEN LURZORUAK[26]

IHOBEren 'Lurzorua kutsatu dezaketen jarduerak jasan edo jasaten dituzten kokalekuen inbentarioa' informazio iturri gisa hartuz, udalerrian kutsatuta egon daitezkeen 6 partzela identifikatu dira: guztiak industria edo jarduera ekonomikoei loturikoak. Guztira 3,25 ha-ko azalera hartzen dute eta kokapenak 29. irudian adierazten dira.

[24] Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus

[25] 177/2014 Dekretua, 2014ko irailaren 16koa, zeinak behin betiko onartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala. EHAA, 198. zk. 2014/10/17.

[26] 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa. EHAA, 204. zk. 2008/10/24.




28. *irudia: Higadura arrisku handiko lurren banaketa Amezketan.*




29. *irudia: Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen kokapena Amezketan.*

### 5.11.5. ZARATA[27,28]

Amezketako udalerrian orokorrean eta zehazki biziguneetan hots-kutsadura eragin dezaketen iturri nagusiak ibilgailuen zirkulazioak eta, batez ere, industria jarduerek sortutakoak dira. Sortzen duten zarata-mailari buruzko daturik ez dago; nahiz eta aspaldikoa izan, erreferentzi gisa balio dezake, 2000. urteko EAEko zaraten mapak ez zuen Amezketa errepideek eragindako inpaktu akustikoa duten udalerrien zerrendan sartu eta industri eremuetako inpaktu akustikoa aztertu ondoren, Amezketan inpakturik ez zela antzeman ondorioztatu zuen. Aldiz, Amezketako Agenda 21 landu zenean, paper fabrikako soinuek aldamenena kokatutako ikastolari eragiten ziola antzeman zen.

Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak, EAEko hots-kutsadurari buruzkoak, ezartzen du udalerriei dagokiela "*udalaren lurralde-eremuaren barruko area akustikoa edota area akustikoak zedarriztatzea eta onartzea, betiere, udalaren planeamenduan aurreikusitako egungo erabilerak oinarri harturik*" (6. artikulua).

### 5.11.6. AIREAREN KALITATEA[29]

Poluitzaileak etengabe neurtzeko estazio finko bakar bat dauka Eusko Jaurlaritzak Tolosaldea osorako, Tolosako herrigunean kokatua. Bertako zirkulazioak eta industriek sorturiko emisioen eraginpean dago nagusiki, beraz zaila da hemendik ondoriorik ateratzea Amezketaren kasurako.

Dena dela, 'Tolosaldea eskualdeko Airearen Kalitatearen Ekintza Plana' idazteko 2008an atmosferako kutsaduraren diagnostiko bat egin zen, non Amezketan airera material partikulatua zuzenean edo erreakzio kimikoen ondorioz emititzen dituzten foku ezberdinak identifikatzen zituzten: 2002ko EAEko Emisioen Inbentarioan eta 2006ko EPER-Euskadi erregistroan agertzen den Papel Aralar S.L. enpresa, errepideko garraioa eta etxebizitzen eta zerbitzuen sektorea.

### **5.11.7.** KLIMA ALDAKETA[30]

Amezketako udalerriak klima mesotermikoa du, tenperaturei dagokionean nahiko moderatua, eta prezipitazio aldetik oso euritsua. Honi, urtaro lehorrik gabeko klima epel hezea edo klima atlantikoa deitzen zaio.

Aldaketa klimatikoaren ondorioz, Euskadin eragin ezberdinak aurreikusten dira, besteak beste:

Uraldien emari maximoak, uholdeak hartutako azalerak, emariaren balioak eta korrontearen abiadura nabarmen hazi daitezke. Aldaketa horiek uholdeen arriskugarritasunaren eta kalteen hazkunde handi samarra sor dezakete.

Batez besteko prezipitazioek behera egingo dute prezipitazioen murrizketa garbiaren eta ebapotranspirazioaren gorakadaren ondorioz.

Nekazaritza-sektorean, klima-aldaketaren ondoriozko ingurumen-baldintzek areagotu egingo dute zenbait laboreren errendimendua (neguko garia, mahatsondoa); gainera, uraren erabileran eraginkortasuna haziko da, eta faktore hori erabakigarria izango da landareak $CO_2$ maila handiarekin eta lehorteekin aldi berean hazten direnean.

Basogintza-sektoreari dagokionez, nitxo edo txoko ekologikoen ereduak erabiliz egindako iragarpenek erakusten dute aztertutako espezieengan (haritza, pagoa eta insignis pinua) inpaktu nabarmena izango dutela; espero da horien nitxo ia guztiak desagertuko direla 2080rako eta Europa iparralderantz lekualdatuko direla pixkanaka XXI. mendean zehar.

---

[27] Euskal Autonomia Erkidegoko Zaraten Mapa. 2000. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, Eusko Jaurlaritza.
[28] Tolomendi & Paisaia SL (2006). *Tokiko Agenda 21. Amezketa. Behin betiko diagnostikoa*. Bozue Udaltalde 21.
[29] Labein Tecnalia, 2008. Tolosaldean airearen kalitatea hobetzeko ekintza-plana. Atmosferako kutsaduraren diagnostikoa. Eusko Jaurlaritza.
30 Klima 2050 Basque Country. 2050erako Klima-Aldaketaren Euskadiko estrategia. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2015. 112 orr.

## 5.12. INGURUMEN UNITATE HOMOGENEOAK

Aurreko alderdi guztiak kontuan hartuta eta HAPOren lanketan laguntze aldera, Amezketako udalerriko lurrak 4 unitate homogeneo ezberdinetan banatu dira: gune hiritartuak, landazabala, landaketak nagusi diren baso eremua eta mendi-aldea.

- **Gune hiritartuak**: Herrigunea eta Ugarte biltzen ditu. Artifizializazio handieneko unitatea izanik, presio hauek egotzi ahal zaizkio: ikusmen-eragin negatiboa, batez ere industria eremuena, hondakin-uren isurketak errekan, zarata eta airearen kutsadura. Halaber, uholde arriskuak gehien mugatzen duen unitate da. Eremu honetan antolamendu irizpide nagusia jasangarritasuna helburu duen birrantolakuntza izango da.




*30. irudia: 'Gune hiritartuak' unitatearen ikuspegi bat: Bartolome Deuna kalea. 2017ko maiatzeko argazkia.*

- **Landazabala**: Etxebizitza isolatuak eta hauei loturiko nekazaritza eta abeltzaintzara zuzendutako malda ertaineko lurrek osatzen dute. Unitate honetako presio nabarmenen artean aipa daitezke: belardiak ongarriztatzean, purinek eragindako kutsadura arriskua, batez ere erreka ibarrean kokatutako larreetan; hauek gainera uholde arriskupeko eremuetan daude; bestalde, etxe inguruetako lorategietan espezie inbaditzaileak erabiltzeagatik ingurunera hedatzeko arriskua dago eta tipologia ez tradizionaletako eraikinek edota etxebizitza isolatuen kontzentrazioak itxura urbanoa ematen diote landa-izaerako unitate honi zenbait kasutan. Irizpidea lurzoruen ahalmen agrologikoa eta abeltzaintza jarduketa jasangarriak, zein hauekin bateragarriak diren eta landa-ekosistemen eta paisaiaren kontserbazioa bermatuko duten jarduketak mantentzea, ur-ibilguen eta hauen ertzen okupazioa ekiditea eta arrisku naturalek eragindako kalteak murriztea izango da.



*31. irudia: 'Landazabala' unitatearen ikuspegi bat: Altunegiko auzoa. 2017ko maiatzeko argazkia.*

- **Landaketak nagusi diren baso eremua**: Aralarko Parke Naturalaren barneko lurrak kenduta, malda handieneko lurrek osatzen dute eta erabilera nagusia baso landaketak dira, tarteka bertako espezieetako basoak ere aurkitzen direlarik. Eragin nagusiak basogintzari lotutako kudeaketak dakarrenak dira: lurzoruaren galera, paisaia-inpaktua, espezie aloktono inbaditzaileak hala nola sasi-arkazia (*Robinia pseudoacacia*) sartzea, etab. Irizpidea lurzorua, biodibertsitatea eta paisaia babesteko basozaintza eredu jasangarriak erabiltzearena izango da.



*32. irudia: 'Landaketak nagusi diren baso eremua' unitatearen ikuspegi bat: Muñobiribil inguruko hego-mazela. 2017ko maiatzeko argazkia.*

- **Mendi-aldea**: Aralarko Parke Naturalaren barneko lurrak dira. Natur ondarearen eta paisaiaren aldetik balio handikoenak direnez eta beheragoko lurraldean erabiltzen den uraren gordailu izanik, irizpidea kontserbaziora zuzendutako kudeaketa izango da. Gehiena mendi publikoa denez, espezie aloktonoen landaketak bertako espezieetako basoetan ordezkatzea izan beharko lukete helburu.



*33. irudia: 'Mendi-aldea' unitatearen ikuspegi bat: Aralar San Martigo gainetik. 2017ko maiatzeko argazkia.*

# 6. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN ANALISIA

Atal honetan Alegiako HAPOk antolatutako esparruan eragina duten lurralde-plangintza eta arloko planak identifikatu eta hauetan jasotako ezarpen eta irizpide nagusiak laburbilduko dira.

## 6.1. LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK[31]

Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretu bidez onartu ziren behin betiko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak edo Gidalerroak (LAA). Artezpide horiek EAEko "*lurraldean jarduten duten eragileen jarduera ekonomikoak eta sozialak bertan kokatzeko prozesuak arautzea eta arloko politikak formulatzeko eta gauzatzeko erreferentzia-esparrua eraikitzea*" dute helburu. Hemendik abiatuta eta ingurune fisikoa oinarri eta euskarritzat hartuta, LAA-ek Lurralde Antolamendurako Eredua osatzen duten proposamen integratuen multzo bat eskaintzen dute, eta aipatutako prozesu horiek bideratzeko eta erregulatzeko irizpide eta arauak finkatzen dituzte.

Antolamendu Kategoriak ingurune fisikorako Lurralde Ereduaren proposamena osatzen dute eta lurraldea sektore edo arlo homogeneotan zonabanatzen. Arlo hauek harrera-ahalmenaren arabera definitzen dira eta bakoitzari erabileren arautze espezifikoa aplikatzen zaio (ingurune fisikoa antolatzeko matrizea). Honako hauek dira:

- Babes berezia
- Ingurumen hobekuntza
- Basoa
- Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala
- Mendiko larreak
- Erabilera-bokazio definitu gabea
- Lurrazaleko uren babesa

LAA-ek diote "*garapen-plangintzak (Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak, Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planak eta abar) LAAetan ezarritako Antolamendu Kategorien izendapenak eta irizpideak erabiliko dituen kalifikazio bat ezarriko du Urbanizaezin gisa sailkatutako lurzorura. Aztergai den zonako berezitasunen arabera, azpikategoria gehigarriak ezar daitezke*" Eta ondoren gehitzen dute garapen plangintzak: "*erabilera eta ihardueren arautze espezifikoagoa ezarri ahal izango du Antolamendu Kategoria bakoitzean, beti ere LAA hauetan izaera orokorrez araututakoa eta dagokion lurralde-eremuko baldintza partikularrak kontuan hartuta*".

Gainera, Antolamendu Kategoriekin batera, gainkarga batzuk ere definitu ziren, jarduera jakin batzuk egitea baldintza dezaketen lurraldeko arrisku edo ezaugarri berezi batzuei buruzkoak:

- Akuiferoen urrakortasuna
- Eremu higakorrak
- Uholde-joerako eremuak
- Natur Espazioak eta Biotopo Babestuak

LAA-ek Udal Antolamenduan zuzenean aplikatuko diren zenbait zehaztapen lotesle ezartzen dituzte:

- Lurrazaleko uren tratamendua: ibilguen babeserako behin-behineko neurri batzuk ezartzen dira.
- Lurzoru hiritarrezinean etxebizitza familiabakar edo familiabikoak eraikitzeko debekua, nekazaritza-ustiategiari loturik daudenean izan ezik.
- Bizitegitarako lurzoruaren eskaintzaren gehienezko muga zenbatekotzea, behin-behineko izaeraz.
- Udal antolamenduak erauzketa jardueren eraginpean dauden eremuak zedarritzeko beharra.

Gainera, LAA-ek Lurraldearen Zatiko Planak eta Lurraldearen Arloko Planak idazterako orduan erreferentzia izango diren beste zehaztapen batzuk ere ezartzen dituzte. Ildo honetan, LAA-en 20. atalean, Jardutze-Eremu edo Eremu Funtzionalak (EF) zedarritzen dira, EAE eta udalerrien arteko eskala moduan. Amezketa, Gipuzkoako beste 28 udalerrirekin batera, Toloserriko (Tolosaldea) EF-ren zati da.

[31] Administrazio eta Lurralde Plangintza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Eusko Jaurlaritza.

2015eko uztailaren 27an, Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) berrikusteko prozedura hasteko erabakia hartu zuen eta duela gutxi 4/2016 Dekretua, urtarrilaren 19koa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen Dekretua aldatzen baita, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez.

Amezketaren kasuan, Estatistika ofizialaren eta 2017ko datuak erabiliz, etxebizitza parkearen handitze-kopurua 64 etxebizitzatan kalkulatu da. Bizitegi-ahalmena lortzeko, aurreko kopuru hori Amezketari bere biztanle kopuruagatik dagokion harrotze faktorearekin biderkatu behar da (HAR = 3,00). Horrela lortutako emaitzari, udalerriko etxebizitza hutsen portzentaje bat kenduko zaio (etxebizitza hutsen %35). Ondorioz, Amezketak duen etxebizitza berriak eraikitzeko gaitasuna, 144 eta 72 unitate bitartean kokatu behar da.

## 6.2. TOLOSERRIKO (TOLOSALDEA) EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE ZATIKAKO PLANA[32]

Tolosaldeako LZP-k 2013ko azaroan jaso zuen hasierako onarpena (EHAA, 214. zk.). LZP-k eremu funtzionalerako lurralde eredu bat proposatzen du. Hau garatzeko tresnen estrategiak eta programak (Udal Hirigintza Plangintza eta plan bereziak funtsean) eta Arloko Planak orientatzeko helburuarekin, eragiketa estrategikoak adierazten ditu.

Amezketako udalerriaren kasuan zehaztapen hauek egiten ditu:

1. INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA

- Udalerriko babestu, hobetu eta/edo leheneratu beharreko eremuak antolatzea, LZParen zehaztapenei jarraiki.
- Ingurune fisikoa antolatzeko kategoriak bere baldintza, ezaugarri, potentzialtasun eta harrera-ahalmenaren arabera definitzea eta arautzea, LZPan eta/edo LAGetan ezarritako irizpideei jarraiki.

4. ZERBITZU AZPIEGITUREN ANTOLAMENDUA

- LZP honek barne hartutako arloko planak eta proiektuak gauzatzeko beharrezko erreserbak.

6. BIZITEGITARAKO ASENTAMENDUETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUA ETA POLITIKA

- Bizitegitarako lurzoruaren eskaintza kuantifikatzea LZParen xedapenen arabera.
- Etxebizitza-jardun publikoak egiteko lurzoruaren antolamendu, sustapen eta hirigintza-kudeaketa aurreikustea, udalerria horiek egiteko intereseko udalerritzat jo baita.

8. EKIPAMENDU ETA ESPAZIO LIBREETARAKO LURZORUAREN ANTOLAMENDUA ETA POLITIKA

- Turismo, hotel, aisia edota kulturarekin zerikusia duten ekipamenduak aurreikustea, lurralderako sarreragune dela kontuan hartuta.
- Ekipamenduak eta espazio libreak landa zonetan eta inguruea naturalean
- Udalerriari dagokion ingurumen ibilbideen sarea.
- Azpiegitura bigunak San Martin inguruan.
- Bainu, atseden eta aisialdi eremu posible baterako azterketarako aurreikuspenak eta, hala badagokio, beharrezko antolaketa eta erreserbak.

[32] Eletxigerra & Lonbera, 2012. Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana. II. Liburua: Antolamendu Arauak eta Udal Antolamenduaren gaineko eraginei buruzko agiri osagarria. Eusko Jaurlaritza & Gipuzkoako Foru Aldundia.

## 6.3. EAEKO IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA

Isurialde kantauriarrari dagokion Ibai eta erreken ertzak antolatzeko LPSak abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bitartez jaso zuen behin-betiko onarpena, azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuak aldatua izan delarik. Antolamendu esparrua Gipuzkoako eta Bizkaiko ur-ibilguen bi aldeetan 100 metroko zabalerako lurzoru-zerrendek osatzen dute, iturburutik bokaleraino.

LAP honek antolamendu arauak ezartzen ditu hiru osagaitan oinarrituta: ingurumen, hidrauliko eta hirigintza arloko osagaiak.

Ingurumen-osagaiari dagokionez, Amezketan bi kategoriako ertzak aurki daitezke (34. irudia):

- '**Ondo kontserbatutako landaredia duten eremuak**': hauetan araudiak honako hau dio: "*Ertz horietan gaur egun dagoen landaredia zaindu nahi da, ekosistema egoera klimazikotik hurbil dagoenean. Era berean, klimaxerantz bilakatu nahi da, esku-hartze birsortzaile bigunen bitartez. Edonola ere, landaredi baliotsuari eusteko ahalegina izango da.*"
- '**Lehentasuneko interes naturalistikoa duten eremuak**': araudiaren arabera, ertz hauetan "*Ibilgua Babesteko Eremu bat ezartzean datza babeserako irizpide orokorra. Babes-eremu horretan, ingurunea aldatzea eragingo duen jardun oro debekatuko da*".




34. *Ibai eta Erreken LAP: ingurumen-osagaiaren arabera sailkatutako ertzak.*

Osagai hidraulikoaren arabera Amezketako ur ibilguak bi mailatan sailkatzen dira: I. maila, 10 eta 50 km2 bitarteko arro isurlearen azalera duten ibai-tarteei dagokiona eta 0. maila, 1 eta 10 km2 bitarteko arroa duten ibai-tarteak. Lehenengoen artean Amezketa erreka eta honen isurleak diren Bedaio, Igaran eta Loidi errekak daude; bigarrenen artean, berriz, Arrieta, Loiola, Errekatxiki eta Basetxerreka errekak daude.

Hirigintza osagaiaren arabera, berriz, LAP-k 'eremu garatuetako ertzak', 'azpiegiturek okupaturiko ertzak', 'garapen berriak hartzeko ahalmena duten eremuetako ertzak' eta 'landa-eremuetako ertzak' bereizten ditu Amezketan (35. irudia) eta kategoria bakoitzarentzat honako gutxieneko erretiro hauek ezartzen ditu:

| | Eremu garatuetako ertzak | | Azpiegiturek okupaturiko ertzak | Hirigintza garapen berriak hartzeko ahalmena duten eremuetako ertzak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Maila | Mugabanaketa-lerro definitua | Lerro ez definitua | | Eraikuntza | Urbanizazio-plataforma | Landa-eremuko ertzak |
| I | 10 m | 12 m | 30 m | 12 m | 2 (4) m | 30 m |
| 0 | 10 m | 12 m | 15 m | 12 m | 2 (4) m | 15 m |




35. *Ibai eta Erreken LAP: hirigintza-osagaiaren arabera sailkatutako ertzak.*

## 6.4. NEKAZARITZA ETA BASOZIANTZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA

Nekazaritza eta Basozaintzako LPS-k behin betiko onespena jaso zuen 177/2014 Dekretua, irailaren 26koaren bitartez eta lurzoru hiritarrezinaren nekazal eta basogintza erabilerak arautzen ditu. Dekretu bidez deklaraturiko Naturagune Babestuak eta Natura 2000 Sareko guneak (Aralarko Parke Naturala eta KBE, hain zuzen) eta Ibai eta Erreken LAP-k xehetasunez antolatutako ur-ibilguen ertzak LPS honen antolaketa-eremutik kanpo geratzen dira.

LPS honek Amezketako udalerriaren erdia (% 50,33) arautzen du, hiru antolamendu kategoria bereizten dituelarik: ‘nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala: trantsiziozko landa paisaia’ (428,6 ha), ‘nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala: balio estrategiko handia’ (41,5 ha) eta ‘basogintza’ (565,8 ha).

Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko kategoriako lurretan irizpidea lurzoruen gaitasun agrologikoa mantentzea izango da: “*Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak eta haiekin osagarri diren eta nekazaritza-paisaiak eta ekosistemak zaintzen direla bermatzen duten gainerako erabilerak mantenduko dira. Arau orokorra nekazaritzako azalera erabilgarria mantentzea izango da*”. Balio estrategiko handiko azpikategorian “*gaitasun agrologiko handiagoko lurzoruak eta modernotasunagatik, errentagarritasunagatik edo jasangarritasunagatik sektorearentzat estrategikotzat jotzen diren nekazaritza-ustiaguneetako lurrak*” sartzen dira eta “*mantentzea eta gordetzea lehentasuna da, bestelako erabileren aurrean*”.

Basogintza kategorian "*Beren egungo erabileragatik eta, batzuetan, erabilera-bokazioaren arrazoiengatik (arriskuak, arroen babesa, eta abar) zuhaitz-estaldura izateko bokazio argia daukaten lurrak sartzen dira*" eta arautzen duten irizpideak Basozaintzako Plan Estrategikoa dokumentuan (1994-2030) azaltzen dira eta aplikatu beharreko araudi sektoriala, hau da, Mendiei buruzko foru-arauak, kontuan hartuko dira. Nolanahi ere, "*Basozaintza-erabilerak lehentasuna izan behar du Basoa kategoriako eremuetan, eremu horiek dutelako potentzialtasunik handiena horretarako, eta haietan basozaintzako produktibitatea eta basoei lotutako gizarte-, babes- eta ingurumen-kanpokotasunak metatu ahal direlako. Zona horietan, baso-masak hobetzeko inbertsioak areagotuko dira: besteak beste, bide-sarea sortzea, suteen aurkako borroka edo basoen tratamenduak. Oro har, finkatutako baso autoktonoak dauden eremuetan, natura kontserbatzeko irizpideak aplikatuko dira, aipatu erabilerak jarrai dezan parametroak erabiliz*".

Udal-plangintzari dagokionean Nekazaritza eta Basozaintzako LPS-k honakoa zehazten du: "*Udal-plangintzak jasotako Lurzoru Ez Urbanizagarria kategoriak Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak proposatutako antolamendu-kategoriak oinarri gisa hartuko ditu, eta, hala egokituz gero, mugaketa udal-errealitate eta -eskalara egokituko du*".

Gainera, bi baldintzatzaile gainjarri ezberdin adierazten ditu Amezketako lurretan: 'eremu higagarriak', Ugarte auzoaren parean, Amezketa errekaren arroko bi magaletan, eta 'akuiferoen zaurgarritasuna' Altzai auzoan.




*36. Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren kategoriak.*

## 6.5. EAEKO JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORU PUBLIKOA ETA MERKATARITZA EKIPAMENDUAK SORTEZKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA

LPS honek behin-betiko onespena jaso zuen abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuaren bitartez, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko eragiketak zein kokapenetan gauzatuko diren identifikatu eta adierazitako jarduketen kuantifikazioa eta bete-beharreko ezaugarriak zehazteko xedearekin. 2018aren urtarrilean berrikuspen partzialaren aurrerapena argitara eman da.

Jarduera ekonomikoari dagokionez, LPS honek Amezketa 'hazkunde moteleko udalerri' gisa sailkatzen du eta Saltoki handien arautzeari dagokionez, Amezketa C kategoriako udalerrien artean sartzen du, proposamen hau egiten duelarik: 15.000 $m^2$-ko azalerako gehienezko plataforma zelaitua eta eraikitako sabai-azalera 5.000 $m^2$-koa gehienez.

Udal plangintza berrikusteko prozesuetarako, lurzoru kalifikazioari buruzko honako irizpideak proposatzen ditu:

- "*Gaur egun 'industriarako' edo 'jarduera ekonomikoetarako' kalifikatutako lurzoruak 'bizitegirako' edo antzeko erabilerarako birkalifikatzeko prozesuak onartzea soilik aldez aurretik eta dokumentu egokien bidez justifikatzen denean ezintasun teknikoa, ekonomikoa edo hirigintza-arlokoa dagoela hautabidezko hirigintza-eragiketa bat planteatzeko, lurzoru horiek jarduera ekonomiko berriak hartzeko eremu gisa birmoldatzekoa, dagokion aparkaleku-zuzkidurarekin hornituta. (...)*".
- "*'Industria-lurzoruaren' edo 'ekonomia-jardueretarako lurzoruaren' hirigintza-kalifikazioa aldatu eta 'bizitegi-lurzoru' edo 'zuzkidura-lurzoru' gisa kalifikatzeko prozesu berriak tramitatzeko, betiere, aldi berean udalerrian edo eskualde-egituran hiri-plangintzari 'ekonomia-jardueretarako' lurzoru berriaren azalera baliokidea gehitzeko eskaera*".
- "*Azkenik, LAP honek 'ekonomia-jardueretarako' kalifikazioa duten lurzoruak beste erabilera alternatibo batzuetarako birkalifikatzea aholkatzen ez dueneko lurzoru-eskuragarritasun txikiagoa duten (...) eskualde-egituretan (...) jarduera ekonomikoaren euskarri den lurzoru urria iraunarazteko asmoz, industria-eremu zaharkituak birmoldatzeko burutzen diren prozesuak lehentasunez ekonomia-jardueretarako eta zuzkidura edo bizitegi gisako eraikuntzarako eragiketa mistoetarantz bideratzea*".

## 6.6. GAINONTZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALAK

EAEn beste Plan eta LPS batzuk onartuta daude, baina ez diote Amezketako udalerriari zuzenean eragiten. Hauek dira:

- **EAEn Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana**: otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuaren bidez onartua, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan trenbide sare osoa ezarri eta garatzeko jarduketak zehazten ditu, Amezketako udalerria sare honen kanpo geratzen delarik.
- **EAEko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala**: maiatzaren 15eko 104/2002 Dekretuaren bitartez onartua, Aralarren parke eolikoak ezartzeko proposatutako lerrokadurak baztertu zituen arrazoi teknikoengatik eta baita ingurumen eraginagatik ere.
- **Gipuzkoako Hiri-Hondakinen Azpiegituretako Lurralde Plan Sektoriala**: Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorra, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2002ko abenduaren 17an behin betiko onartutakoak, udal eskumenekoa den gaikako bilketari buruz helburuak ezartzen ditu eta hauek hirigunearen diseinuan izan ditzaketen ondorioez haratago, Arloko Plan honek ez du inolako eraginik Amezketako udalerriaren lurralde plangintzan.
- **EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala:** martxoaren 13ko 43/2007 Dekretuaren bidez onartua, Amezketan ez du inolako eraginik.
- **EAEko Errepideen II. Plan Orokorra 2005-2016**: azaroaren 23ko 307/2010 Dekretuak onartua, hainbat jarduketa proposatzen zituen EAEKo errepideen hobekuntzarako, hauetatik ezta bat ere ez Amezketa zeharkatzen duten errepide tarteetan.
- **Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Arloko Plana**: ekainaren 10eko 2/2013 Foru Arauaren bitartez onartua, Gipuzkoako hirigune nagusiak uztartuko dituen gutxi gora-behera 439 km-ko bizikleta bideen sarea proposatzen du, Amezketa Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sare honetatik kanpo utziz.

# 7. AINTZAT HARTUTAKO ALTERNATIBEI BURUZKO INGURUMEN AZTERKETA

## 7.1. ALTERNATIBEN INGURUMEN-AZTERKETARAKO METODOLOGIA

Atal honetan alternatiben ingurumen-azterketa HAPO-ak definitzen dituen ekintza-eremu edo esparruetako bakoitzak gaur egun aurkezten dituen ingurumen-baldintzatzaile nagusietan oinarrituko da. Horretarako, alternatiba ezberdinen balorazioa egingo da, bakoitzak izango lituzkeen onura eta kalte potentzialak identifikatuz.

Aurreikusten diren hirigintza garapenen ezaugarriak kontuan harturik (etxebizitza-, jarduera ekonomiko- eta merkataritza-garapenak), hauek gehien baldintzatuko dituzten ingurumen-eragileak honakoak izan daitezke:

- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Aztertutako eremu batzuek ahalmen agrologiko handiko lurzoruak dituzte gaur egun, bertan aurreikusitako garapenek lurzoru hauek galtzea ekarriko luketelarik. Alderdi hau baldintzatzailetzat jotzeko irizpidea Nekazaritza eta Basogintza LAP-ean 'Balio estrategiko altua' kategorian sailkatuta egotea izan da.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Aztertutako eremuak lurrazaleko ur-ibilguren batek (ibai, erreka eta errekasto) zeharkatzen dituen hartu da kontuan, eta aurreikusitako garapenak baldintzatuko dituzten edo ez aztertu da.
- Landaretza: Aztertutako eremuek interesa duten landaretza edo habitatak azaltzen dituzten aztertu da. Intereseko landareditzat jotzen dira, alde batetik 92/43/CEE Habitaten Zuzentarauko I. eranskinean definituriko Interes Komunitarioko Habitatak, eta bestetik hostozabalen baso autoktonoak (artadiak, hariztiak, pagadiak, e.a.).
- Fauna: Amezketako udalerrian EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan dauden zenbait espezie aurki daitezke. Hauetako gehienen kasuan, beraien interes bereziko eremuak eta lehentasunezko banaketa eremuak Aralar Parke Naturalaren eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren barruan daude. Hala ere, baldintzatzaile honen eragina aztertzerakoan orokorrean mehatxatutako faunaren habitat potentzialarekin bat datozen hartuko da irizpidetzat.
- Naturagune babestuak: Amezketako Udalerrian legearen babespean edo bestelako babesen bat duten zenbait naturagune daude, hala nola, Parke Naturala, Kontserbazio Bereziko Eremua eta EAE-ko korridore ekologikoen sarea osatzen duten zenbait elementu. Hirigintza garapenean proposaturiko esparruek gune hauekin bat egiten duten aztertuko da baldintzatzaile hau definitzeko garaian.
- Paisaia: Zenbait esparrutan aurreikusten diren garapenek paisaiaren gainean eragina izan dezakete; eragin honen tamaina eremu horren paisaiaren egungo kalitatearen eta inguruko paisaiaren ezaugarrien araberakoa izango da.
- Kultur ondarea: Azterketa-eremuetan kultur ondareko elementuren bat egoteak bertan emango diren garapenak baldintzatuko lituzkeenez, garapen ezberdinetarako aurreikusten diren azterketa-eremuek duten kultur ondarea aztertuko da.
- Ingurumen-arriskuak: Kontuan hartu diren arrisku nagusiak honakoak dira:
    - Uholde-arriskua: Ur-Agentziak argitaratutako uholde arriskuei buruzko maparen arabera, Alko hiriguneko zenbait eremu birgertatze-aldi ezberdinetarako (10, 100, 500 urte) urperagarriak diren guneetan kokatzen dira. Aurreikusten diren garapen nagusiak hartuko dituzten eremuek duten uholde-arriskua aztertuko da. Ur-Agentziak darabiltzan irizpideak[33] ikusirik, arrisku hau baldintzatzailetzat jotzeko 10 eta 100 urteko birgertatze-aldiari dagozkion eremu urperagarriak besterik ez dira kontutan hartu, hauentzat zenbait mugaketa eta baldintza ezartzen baitira hirigintza-garapen berriei dagokienez. Esparrukako azterketan, azalera ($m^2$) kalkulatzerakoan eremu libreak ez dira kontutan hartu.
    - Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna: Azterketa-esparruak akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun handia edo oso handia duten eremuen barruan ote dauden aztertu da.
    - Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak: Azterketa-eremu ezberdinek IHOBEk eginiko *'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioan'* dauden lursailak dituzte gaur egun, beraz hau beste baldintzatzaile bat izango da aurreikusten diren garapen batzuentzat.

[33] Ur-Agentzia, 2011. Lurra erabiltzeko irizpideak lurrak urpean gelditzeko duen arrisku-mailaren arabera.

- Higadura jasateko arriskua: Nekazaritza eta Basogintza LAP-k azaltzen dituen higadura arriskua duten eremuak eta %50 gainditzen duten maldak kontuan hartuz, azterketa-eremuek jasan dezaketen higadura-arriskua baloratuko da, gerora ere aurreikusitako garapenak aurrera eramateko baldintzatzaile izango ote den zehazteko.
- Zarata: Amezketako udalerriko mapa akustikorik ezean, GI-2133 errepidearekiko eta industria jarduerekiko esparruen hurbiltasuna baloratuko da.

## 7.2. 0 ALTERNATIBAREN INGURUMEN AZTERKETA

0 alternatiba gaur egun indarrean dagoen araudiarekin bat dator. Aipatu behar da Papelera eta Sahiesbidea esparruak ez direla kontuan izan alternatiba honetako azterketan, gaur egun gauzatuta dauden jarduerez gain ez baitu besterik aurreikusten.

- Lurzoruaren okupazioa: Bateragarria. Lurzoruaren okupazio handiena Juaregi eta Ola esparruetan gertatuko da.

- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Nabarmena. Ola eta Jauregi esparruetan daude ahalmen agrologiko handiko lursail zabalenak. Beste esparruek eremuren bat hartzen duten arren, haien azalerarik handiena hiritartuta dago.

- Lurrazaleko ur-ibilguak: Bateragarria. Alternatiba honek ez du jarduerarik aurreikusten udalerriko ibai eta erreketan, beraz aurreikus daitekeen eragin bakarra, obra fasean, ibilguen ondoan kokatuta dauden esparruak garatzerakoan sortutakoa da. Esparruetan eginiko jarduerek uren kalitatean eragina izan lezakete. Beraz, hau gerta ez dadin neurriak hartuko dira.

- Intereseko landaretza: Bateragarria. Amezketa ibaiaren ertzetan Ola eta Insausti-Zubillaga esparruetan '91E0* Haltzadi eta lizardien baso alubialak' Interes Komunitarioko Habitat lehenetsia agertzen da,kontserbazio-egoera desegokian espezie aloktonoekin batera zati batzuetan (Insa.-Zubillaga esparruan). Aurreikusten diren garapenek ez lukete eraginik izan behar baso hauetan, baina zeharkako eraginak ekiditeko neurriak hartu beharko dira obra fasean batez ere.

- Intereseko Fauna: Bateragarria. Azpimarratzekoa da Ergoene, Hirigunea eta Larraitz-bidea esparruak Hegazti nekrofagoen (ugatzaren, sai-zuriaren eta sai-arrearen) Interes Bereziko Eremuaren eta espezie hauek elikatzeko babesgunearen barnean daudela. Basa katua, hegazti eta saguzarren Lehentasunezko Banaketa Eremuak ere esparru hauetaraino iristen dira. Aurreikusten diren garapenak eta esparru hauetako lurzoru hiritartua kontuan izanik, intereseko faunarengan ez da eragin larririk aurreikusten. Hala ere, baldintzatzaile gainjarri bezala kontuan hartzen da eta intereseko faunaren babesa bermatu beharko da.

- Eremu natural babestuak: Neurrizkoa. Ergoene, Hirigunea eta Larraitz-bidea esparruak Aralarko Parke Naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren barnean kokatzen dira. Ergoene eta Hirigunea esparru hiritarrak izanik bertan aurreikusten diren garapenak bateragarriak dira. Larraitz-bidean aurreikusten diren garapenek inpaktu negatiboa izango dute. Lurzoru hiritarrezinaren zonakatzeak baldintzatzaile gainjarri bezala kontuan hartzen ditu Aralar KBE eta Parke Naturala, beraz Plan Orokorrak eremu hauen babesa bermatuko du.

- Paisaia: Neurrizkoa. Larraitz-bidea eta Jauregi esparruetako garapenek lorzorua okupatu eta itsuraldatuko dute esparru hiritar bihurtuz. Ola esparruko landa paisaiak aldaketa nabarmena izango du jarduera ekonomikoetarako lursail bihurtuz.

- Kultur ondarea: Bateragarria. Alternatiba honetako garapenek ez dute elementu hauetan eraginik aurreikusten.

- Uholde-arriskua: Nabarmena. Esparru gehienen zatiren bati urperagarritasun arriskuak eragiten die era nabarmenean, 10 eta 100 urteko birgertatze-aldiko eremuek eta lehentasunezko fluxu eremuak hartzen dituztelarik. Honek Ur-Agentziak ezarritako irizpideen arabera, aurrera eraman daitezkeen garapenak mugatzen ditu batez ere Jauregi eta Ola esparruetan aurreikusten diren garapenetan, proposamenetan doiketa egin beharko liratekeelarik.

- Akuiferoen urrakortasun handia: Bateragarria. Ergoene esparruan ekialdeko ertzean aurkitu daiteke ingurumen arrisku hau. Eremu honetan garapenak aurreikusiz gero, neurriak hartu beharko dira.

- Higadura-arriskua:Neurrizkoa. Larraitz-bidea esparruan aurkitzen da arrisku handiena, eremuko orografiagatik, malda batean kokatzen baita. Neurriak hartu beharko dira arrisku hau deuseztatzeko.

- Kutsatuta-egon daitezkeen lurzoruak: Larraitz bidea, Insausti-Zubillaga eta Ola esparruetan industria gune batzuk IHOBEren 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioa'n agertzen dira. Papelerako esparruan agertzen kutsatuta

egon daitezkeen lurzoruak ez dira kontutan izan, ez baita bertan inolako aldaketarik ez garapenik aurreikusten. Kutsatutako lur hauek aintzat hartzeko ingurumen-eragina izan lezake, izan ere kutsatutako lurzoruen indusketa behar izanez gero, era berezian kudeatu beharreko hondakin arriskutsuen sorrera ekarriko bailuke. Edonola ere, eremu honetan proposaturiko jarduerak 1/2005 legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatuta garbitzekoak, ezartzen duenaren menpe egongo dira.

- Zarata: Bateragarria. Aurreikusten diren garapenen zarata maila bateragarria dela esan daiteke. Hala ere, industriaguneetan zarata arazoren bat sortu daiteke.

| Ingurumen baldintzatzaileak | | A.I.U. Esparrua | | | | | | | | | | | Ingurumen-eragina |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 Ergoene | 2 Papelera | 3 Hirigunea | 4 Larraitz | 5 Sahiesbidea | 6 Alegialde | 7 Jauregi | 8 Insa.-Zubi. | 9 Ola | 10 Ugarte | Orokorra | |
| Lurzorua okupatua | Balorazioa | neurrizkoa | neurrizkoa | bateragarria | bateragarria | neurrizkoa | bateragarria | neurrizkoa | neurrizkoa | nabarmena | bateragarria | - | bateragarria |
| | Adierazlea: Azalera m²/eremu libreak (%) | 53.977 / %3,92 | 53.274 / %1,93 | 21.179 / %19,79 | 22.729 / %5,66 | 20.417 / %0,89 | 21.532 / %6,16 | 21.827 / %0,92 | 23.721 / %6,50 | 69.054 / %2,69 | 12.142 / %9,09 | 319.852 / %4,64 | |
| Lurzoruaren ahalmen agrologikoa | Balorazioa | bateragarria | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | - | ez esanguratsua | neurrizkoa | bateragarria | nabarmena | bateragarria | - | nabarmena |
| | Adierazlea: Mota agrologiko erabilgarriak m² | III mota: 9.800 | - | 0 | 0 | - | 0 | III mota: 11.000 | III-mota: 1.980 | III-mota: 55.490 | III-mota: 1.752 | 80.422 | |
| Lurrazaleko ur-ibilguak | | bateragarria | - | bateragarria | bateragarria | - | bateragarria | bateragarria | bateragarria | bateragarria | bateragarria | - | bateragarria |
| Intereseko landaretza | Balorazioa | ez esanguratsua | | ez esanguratsua | ez esanguratsua | | ez esanguratsua | ez esanguratsua | bateragarria | neurrizkoa | ez esanguratsua | - | bateragarria |
| | Adierazlea: Azalera m² | 0 | - | 0 | 0 | - | 0 | 0 | 91E0*: 4.000 | 91E0*: 9.000 | 0 | 13.000 | |
| Intereseko fauna | | bateragarria | - | bateragarria | bateragarria | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | | bateragarria |
| Eremu natural babestuak | Balorazioa | bateragarria | - | bateragarria | neurrizkoa | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | - | neurrizkoa |
| | Adierazlea: Parke Naturala/KBE azalera m² | 40.641/7.158 | - | 11.284/88 | 21.592/13.916 | - | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 73.517/21.162 | |
| Paisaia | | bateragarria | - | bateragarria | neurrizkoa | - | bateragarria | neurrizkoa | bateragarria | nabarmena | bateragarria | - | neurrizkoa |
| Kultur-ondarea | | bateragarria | - | bateragarria | bateragarria | - | ez esanguratsua | bateragarria | bateragarria | ez esanguratsua | bateragarria | - | bateragarria |
| Uholde arriskua | Balorazioa | neurrizkoa | - | neurrizkoa | ez esanguratsua | - | neurrizkoa | neurrizkoa | neurrizkoa | neurrizkoa | nabarmena | - | nabarmena |
| | Adierazlea: Birgertatze aldien azalera m² | 10 urte:6.597 100 urte:11.237 | - | 10 urte:1.870 100 urte:10.999 | 10 urte:0 100 urte:127 | - | 10 urte:2.080 100 urte:9.512 | 10 urte:0 100 urte:3.656 | 10 urte:3.464 100 urte:7.800 | 10 urte:8.000 100 urte: 11.742 | 10 urte:5.814 100 urte:8.318 | 10 urte:27.825 100 urte:63.385 | |
| Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna | Balorazioa | bateragarria | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | - | bateragarria |
| | Adierazlea: urrakortasun handiaren azalera m² | 3.400 | - | 0 | 0 | - | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 3.400 | |
| Higadura arriskua | Balorazioa | neurrizkoa | - | bateragarria | nabarmena | - | bateragarria | bateragarria | ez esanguratsua | bateragarria | ez esanguratsua | - | neurrizkoa |
| | Adierazlea: eremu higigarrien azalera m² | 11.930 | - | 4.088 | 15.526 | - | 2.500 | 2.650 | 0 | 2.937 | 0 | 39.631 | |
| Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak | Balorazioa | ez esanguratsua | | ez esanguratsua | bateragarria | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | neurrizkoa | nabarmena | ez esanguratsua | - | neurrizkoa |
| | Adierazlea: kutsatutako eremua azalera m² | 0 | - | 0 | 137 | - | 0 | 0 | 971 | 5.678 | 0 | 6.786 | |
| Zarata | | bateragarria | - | bateragarria | bateragarria | - | bateragarria | bateragarria | bateragarria | neurrizkoa | bateragarria | - | bateragarria |

Udalerriko zonaketa orokorrari begiratuz gero, ikus daiteke Lurzoru hiritar eta hiritargarriak % 1,55 besterik ez duela suposatzen, gainerako guztia lurzoru hiritarezinaren barnean geratuz. Nabarmentzekoa da lurzoru hiritarezinaren % 48 babes naturaleko eremuen barnean dagoela.

| 0 alternatiba | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Zonaketa globala | kategoriak | | Azalera (ha) | % ehunekoa |
| Lurzoru hiritar eta hiritargarria | Lurzoru hiritarra | | 22,89 | %1,11 |
| | Lurzoru hiritargarria | | 9,09 | %0,44 |
| Lurzoru hiritaezina | Babes bereziko eremua | | 267,69 | %13,01 |
| | Nekazaritza-abeltzaintza eremua | Transiziozko landa paisaia | 326,03 | %15,84 |
| | | Balio estrategiko altua | 25,05 | %1,22 |
| | Basoa | | 358,11 | %17,40 |
| | Ibai ibilgua eta bere ertzak babesteko eremua | | 51,35 | %2,49 |
| | Ingurumen hobekuntzarako eremua | | 2,36 | %0,11 |
| | Sistema orokorra | Komunikazio sistema* | 2,35 | %0,11 |
| | | San Martin | 3,19 | %0,15 |
| | Babes naturaleko eremuak*: Aralar Parke naturala/ Aralar Kontserbazio bereziko eremua | | 990,58 | %48,13 |

*San Martin auzoaren inguruko mugaketan, komunikabide-sistema babes naturaleko eremuari gainjartzen zaio.

## 7.3. 1 ALTERNATIBAREN INGURUMEN AZTERKETA

1 alternatiban ez dira aipatzen Papelera eta Sahiesbidea esparruaetan gerta daitezkeen ingurumen inpaktuak, gaur egun gauzatuta dauden jarduerez gain ez baitu besterik aurreikusten.

- Lurzoruaren okupazioa: Bateragarria. Lurzoruaren okupazio handiena Larraitz-bidea, Juaregi eta Lapatza esparruetan gertatuko da.

- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Nabarmena. Lapatza, Jauregi, Olalde eta Ugarte esparruetan daude ahalmen agrologiko handiko lursail zabalenak. Beste esparruek eremuren bat hartzen duten arren, haien azalerarik handiena hiritartuta dago.

- Lurrazaleko ur-ibilguak: Bateragarria. Alternatiba honek ez du jarduerarik aurreikusten udalerriko ibai eta erreketan, beraz aurreikus daitekeen eragin bakarra, obra fasean, ibilguen ondoan kokatuta dauden esparruak garatzerakoan sortutakoa da. Esparruetan eginiko jarduerek uren kalitatean eragina izan lezakete. Beraz, hau gerta ez dadin neurriak hartuko dira.

- Intereseko landaretza: Bateragarria. Amezketa ibaiaren ertzetan Insausti-Zubillaga, Lapatza, Olalde eta Ugarte esparruetan '91E0* Haltzadi eta lizardien baso alubialak' Interes Komunitarioko Habitat lehenetsia agertzen da,kontserbazio-egoera desegokian espezie aloktonoekin batera zati batzuetan (Insa.-Zubillaga esparruan). Aurreikusten diren garapenek ez lukete eraginik izan behar baso hauetan, baina zeharkako eraginak ekiditeko neurriak hartu beharko dira obra fasean batez ere.

- Intereseko Fauna: Bateragarria. Azpimarratzekoa da Ergoene, Hirigunea eta Larraitz-bidea esparruak Hegazti nekrofagoen (ugatzaren, sai-zuriaren eta sai-arrearen) Interes Bereziko Eremuaren eta espezie hauek elikatzeko babesgunearen barnean daudela. Basa katua, hegazti eta saguzarren Lehentasunezko Banaketa Eremuak ere esparru hauetaraino iristen dira. Aurreikusten diren garapenak eta esparru hauetako lurzoru hiritartua kontuan izanik, intereseko faunarengan ez da eragin larririk aurreikusten. Hala ere, baldintzatzaile gainjarri bezala kontuan hartzen da eta intereseko faunaren babesa bermatu beharko da.

- Eremu natural babestuak: Neurrizkoa. Ergoene, Hirigunea eta Larraitz-bidea esparruak Aralarko Parke Naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren barnean kokatzen dira. Ergoene eta Hirigunea esparru hiritarrak izanik bertan aurreikusten diren garapenak bateragarriak dira. Larraitz-bidean aurreikusten diren garapenek inpaktu negatiboa izango dute. Lurzoru hiritarrezinaren zonakatzeak baldintzatzaile gainjarri bezala kontuan hartzen ditu Aralar KBE eta Parke Naturala, beraz Plan Orokorrak eremu hauen babesa bermatuko du.

- Paisaia: Neurrizkoa. Larraitz-bidea eta Jauregi esparruetako garapenek lorzorua okupatu eta itsuraldatuko dute esparru hiritar bihurtuz. Lapatza esparruko landa paisaiak aldaketa nabarmena izango du jarduera ekonomikoetarako lursail bihurtuz.

- Kultur ondarea: Bateragarria. Alternatiba honetako garapenek ez dute elementu hauetan eraginik aurreikusten.

- Uholde-arriskua: Nabarmena. Esparru gehienen zatiren bati urperagarritasun arriskuak eragiten die era nabarmenean, 10 eta 100 urteko birgertatze-aldiko eremuek eta lehentasunezko fluxu eremuak hartzen dituztelarik. Honek Ur-Agentziak ezarritako irizpideen arabera, aurrera eraman daitezkeen garapenak mugatzen ditu batez ere Lapatza esparruan aurreikusten diren garapenetan, proposamenetan doiketa egin beharko liratekeelarik.

- Akuiferoen urrakortasun handia: Bateragarria. Ergoene esparruan ekialdeko ertzean aurkitu daiteke ingurumen arrisku hau. Eremu honetan garapenak aurreikusiz gero, neurriak hartu beharko dira.

- Higadura-arriskua: Neurrizkoa. Larraitz-bidea esparruan aurkitzen da arrisku handiena. Neurriak hartu beharko dira arrisku hau deuseztatzeko.

- Kutsatuta-egon daitezkeen lurzoruak: Larraitz bidea, Insausti-Zubillaga eta Lapatza esparruetan industria gune batzuk IHOBEren 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioa'n agertzen dira. Papelerako esparruan agertzen kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak ez dira kontutan izan, ez baita bertan inolako aldaketarik ez garapenik aurreikusten. Kutsatutako lur hauek aintzat hartzeko ingurumen-eragina izan lezake, izan ere kutsatutako lurzoruen indusketa behar izanez gero, era berezian kudeatu beharreko hondakin arriskutsuen sorrera ekarriko bailuke. Edonola ere, eremu honetan proposaturiko jarduerak 1/2005 legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatuta garbitzekoak, ezartzen duenaren menpe egongo dira.

- Zarata: Bateragarria. Aurreikusten diren garapenen zarata maila bateragarria dela esan daiteke. Hala ere, industriaguneetan zarata arazoren bat sortu daiteke.

| Ingurumen baldintzatzaileak | | A.I.U. Esparrua | | | | | | | | | | | | Ingurumen-eragina |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 Ergoene | 2 Papelera | 3 Hirigunea | 4 Larraitz | 5 Sahiesbidea | 6 Alegialde | 7 Jauregi | 8 Insa.-Zubi. | 9 Lapatza | 10-Olalde | 11 Ugarte | Orokorra | |
| Lurzorua okupatua | Balorazioa | bateragarria | neurrizkoa | bateragarria | bateragarria | neurrizkoa | neurrizkoa | bateragarria | neurrizkoa | bateragarria | neurrizkoa | bateragarria | - | bateragarria |
| | Adierazlea: Azalera m²/eremu libreak (%) | 54.397 / %11,47 | 52.889 / %1,94 | 26.902 / %20,15 | 25.319 / %15,99 | 20.420 / %0,78 | 21.230 / %6,25 | 21.892 / %25,16 | 24.453 / %9,30 | 50.657 / %21,47 | 22.728 / %1,66 | 23.425 / %22,56 | 344.312 / %12,35 | |
| Lurzoruaren ahalmen agrologikoa | Balorazioa | bateragarria | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | - | ez esanguratsua | neurrizkoa | bateragarria | nabarmena | neurrizkoa | neurrizkoa | - | nabarmena |
| | Adierazlea: Mota agrologiko erabilgarriak m² | III mota: 8.600 | - | 0 | 0 | - | 0 | III mota: 12.072 | III-mota: 1.980 | III-mota: 38.890 | III-mota: 8.588 | III-mota: 11.874 | 83.204 | |
| Lurrazaleko ur-ibilguak | | bateragarria | - | bateragarria | bateragarria | - | bateragarria | bateragarria | bateragarria | bateragarria | | bateragarria | - | bateragarria |
| Intereseko landaretza | Balorazioa | ez esanguratsua | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | | ez esanguratsua | ez esanguratsua | bateragarria | bateragarria | | bateragarria | - | bateragarriaa |
| | Adierazlea: Azalera m² | 0 | - | 0 | 0 | - | 0 | 0 | 91E0*: 4.000 | 91E0*: 8.288 | 91E0*: 3.798 | 91E0*: 188 | 91E0*: 16.274 | |
| Intereseko fauna | | bateragarria | - | bateragarria | bateragarria | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | | bateragarria |
| Eremu natural babestuak | Balorazioa | bateragarria | - | bateragarria | neurrizkoa | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | | neurrizkoa |
| | Adierazlea: Parke Naturala/KBE azalera m² | 40.641/7.158 | - | 16.968/334 | 20.852/18.853 | - | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 78.461/26.345 | |
| Paisaia | | bateragarria | - | bateragarria | nabarmena | - | bateragarria | neurrizkoa | bateragarria | neurrizkoa | bateragarria | bateragarria | - | neurrizkoa |
| Kultur-ondarea | | bateragarria | - | bateragarria | ez esanguratsua | - | ez esanguratsua | bateragarria | bateragarria | ez esanguratsua | bateragarria | bateragarria | - | bateragarria |
| Uholde arriskua | Balorazioa | neurrizkoa | - | neurrizkoa | ez esanguratsua | - | neurrizkoa | neurrizkoa | neurrizkoa | neurrizkoa | bateragarria | neurrizkoa | - | nabarmena |
| | Adierazlea: Birgertatze aldien azalera m² | 10 urte:6.410 100 urte:11.000 | - | 10 urte:1.870 100 urte:11.100 | 10 urte:0 100 urte:0 | - | 10 urte:2.080 100 urte:9.512 | 10 urte:0 100 urte:620 | 10 urte:3.470 100 urte:7.800 | 10 urte:4.050 100 urte: 5.000 | 10 urte:1.150 100 urte: 1.150 | 10 urte:7.470 100 urte:9.200 | 10 urte:26.500 100 urte:55.382 | |
| Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna | Balorazioa | bateragarria | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | - | bateragarria |
| | Adierazlea: urrakortasun handiaren azalera m² | 3.400 | - | 0 | 0 | - | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 3.400 | |
| Higadura arriskua | Balorazioa | neurrizkoa | - | bateragarria | neurrizkoa | - | bateragarria | bateragarria | ez esanguratsua | bateragarria | ez esanguratsua | ez esanguratsua | - | neurrizkoa |
| | Adierazlea: eremu higigarrien azalera m² | 11.930 | - | 6.185 | 19.965 | - | 2.500 | 1.800 | 0 | 2.937 | 0 | 0 | 46.167 | |
| Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak | Balorazioa | ez esanguratsua | - | ez esanguratsua | bateragarria | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | neurrizkoa | nabarmena | ez esanguratsua | ez esanguratsua | - | neurrizkoa |
| | Adierazlea: kutsatutako eremua azalera m² | 0 | - | 0 | 137 | - | 0 | 0 | 971 | 5.678 | 0 | 0 | 6.786 | |
| Zarata | | bateragarria | - | bateragarria | bateragarria | - | bateragarria | bateragarria | bateragarria | neurrizkoa | bateragarria | bateragarria | - | bateragarria |

Udalerriko zonaketa orokorrean lurzoru hiritar eta hiritargarriak % 1,67 suposatzen du, gainerako guztia lurzoru hiritarezinaren barnean dago. Lurzoru hiritarezinaren %48 babes naturaleko eremuen barnean dago. Landa-nukleo bat proposatzen da San Martin inguruan eta hau babes naturaleko eremuarekin gainjartzen da.

| 1 alternatiba | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Zonaketa globala | kategoriak | | Azalera (ha) | % ehunekoa |
| Lurzoru hiritar eta hiritargarria | Lurzoru hiritarra | | 27,18 | %1,32 |
| | Lurzoru hiritargarria | | 7,25 | %0,35 |
| Lurzoru hiritaezina | Babes bereziko eremua | | 267,69 | %13,00 |
| | Nekazaritza-abeltzaintza eremua | Transiziozko landa paisaia | 326,39 | %15,85 |
| | | Balio estrategiko altua | 22,60 | %1,10 |
| | Basoa | | 358,11 | %17,39 |
| | Ibai ibilgua eta bere ertzak babesteko eremua | | 50,07 | %2,43 |
| | Ingurumen hobekuntzarako eremua | | 2,36 | %0,11 |
| | Sistema orokorra | Komunikazio sistema* | 1,84 | %0,09 |
| | | San Martin | 3,20 | %0,16 |
| | Babes naturaleko eremuak*: Aralar Parke naturala/ Aralar Kontserbazio bereziko eremua | | 990,05 | %48,10 |
| | Landa-nukleoa | | 6,95 | %0,34 |

*San Martin auzoaren inguruko mugaketan, landa-nukleoa eta komunikabide-sistema babes naturaleko eremuari gainjartzen zaizkio.

## 7.4. 2 ALTERNATIBAREN INGURUMEN AZTERKETA

2 alternatiban ez da aipatzen Sahiesbidea esparruko ingurumen inpaktuarik, gaur egun gauzatuta dauden jarduerez gain ez baitu besterik aurreikusten. Alternatiba honek, Papelerako esparruan kokatzen du gaur egun Ergoene esparruan dagoen Herri Eskola eta aktibitate ekonomikoetarako eremu moduan finkatzen du. Ingurumen inpaktua ahalik eta errealen kuantifikatzeko, esparrura gehitzen den lurzoru honen inpaktuak soilik jaso dira azterketa honetan.

- Lurzoruaren okupazioa: Bateragarria. Lurzoruaren okupazio handiena Larraitz-bidea, Zabalkundea, Lapatza eta Ugarte esparruetan gertatuko da.

- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Nabarmena. Zabalkundea, Lapatza, Olalde eta Ugarte esparruetan daude ahalmen agrologiko handiko lursail zabalenak. Beste esparruek eremuren bat hartzen duten arren, haien azalerarik handiena hiritartuta dago.

- Lurrazaleko ur-ibilguak: Bateragarria. Alternatiba honek ez du jarduerarik aurreikusten udalerriko ibai eta erreketan, beraz aurreikus daitekeen eragin bakarra, obra fasean, ibilguen ondoan kokatuta dauden esparruak garatzerakoan sortutakoa da. Esparruetan eginiko jarduerek uren kalitatean eragina izan lezakete. Beraz, hau gerta ez dadin neurriak hartuko dira.

- Intereseko landaretza: Bateragarria. Amezketa ibaiaren ertzetan Jauregi-Zubillaga, Lapatza, Olalde eta Ugarte esparruetan '91E0* Haltzadi eta lizardien baso alubialak' Interes Komunitarioko Habitat lehenetsia agertzen da. Aurreikusten diren garapenek ez lukete eraginik izan behar habitat hauetan, baina zeharkako eraginak ekiditeko neurriak hartu beharko dira obra fasean batez ere.

- Intereseko Fauna: Bateragarria. Azpimarratzekoa da Ergoene, Papelera, Hirigunea eta Larraitz-bidea esparruak Hegazti nekrofagoen (ugatzaren, sai-zuriaren eta sai-arrearen) Interes Bereziko Eremuaren eta espezie hauek elikatzeko babesgunearen barnean daudela. Basa katua, hegazti eta saguzarren Lehentasunezko Banaketa Eremuak ere esparru hauetaraino iristen dira. Aurreikusten diren garapenak eta esparru hauetako lurzoru hiritartua kontuan izanik, intereseko faunarengan ez da eragin larririk aurreikusten.

- Eremu natural babestuak: Neurrizkoa. Ergoene, Papelera, Hirigunea eta Larraitz-bidea esparruak Aralarko Parke Naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren barnean kokatzen dira. Ergoene eta Hirigunea esparru hiritarrak izanik bertan aurreikusten diren garapenak bateragarriak dira. Larraitz-bidean aurreikusten diren garapenek inpaktu negatiboa izango dute. Lurzoru hiritarrezinaren zonakatzeak baldintzatzaile gainjarri bezala kontuan hartzen ditu Aralar KBE eta Parke Naturala, beraz Plan Orokorrak eremu hauen babesa bermatuko du.

- Paisaia: Neurrizkoa. Larraitz-bidea, Zabalkundea eta Lapatza esparruak landa paisaia izatetik lur hiritar eta jarduera ekonomikoetara lur izatera pasako dira, paisaian eragin garrantsitsua sortuz batez ere Lapatzako eta Larraitz bideko industriaguneek.

- Kultur ondarea: Bateragarria. Alternatiba honetako garapenek ez dute elementu hauetan eraginik aurreikusten.

- Uholde-arriskua: Nabarmena. Esparru gehienen zatiren bati 10 eta 100 urteko birgertatze-aldiko eremuek eta lehentasunezko fluxu eremuek eragiten die. Honek Ur-Agentziak ezarritako irizpideen arabera, egin daitezkeen garapenak mugatzen ditu, batez ere Lapatza eta zabalkundea esparruetan.

- Akuiferoen urrakortasun handia: Bateragarria. Ergoene esparruan ekialdeko ertzean aurkitu daiteke ingurumen arrisku hau. Eremu honetan garapenak aurreikusiz gero, neurriak hartu beharko dira.

- Higadura-arriskua: Neurrizkoa. Larraitz-bidea esparruan aurkitzen da higadura arrisku nabarmena. Neurriak hartu beharko dira esparru guztietan arrisku hau deuseztatzeko.

- Kutsatuta-egon daitezkeen lurzoruak: Neurrizkoa. Larraitz bidea, Jauregi-Zubillaga eta Lapatza esparruetan industria gune batzuk IHOBEren 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioa'n agertzen dira. Papelerako esparruan kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak ez dira kontutan izan, aktibitate ekonomiko berriak aurreikusten diren eremuarekin ez datozelako bat. Kutsatutako lur hauek aintzat hartzeko ingurumen-eragina izan lezake, izan ere kutsatutako lurzoruen indusketa behar izanez gero, era berezian kudeatu beharreko hondakin arriskutsuen sorrera ekarriko bailuke. Eremu honetan proposaturiko jarduerak 1/2005 legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatuta garbitzekoak, ezartzen duenaren menpe egongo dira.

- Zarata: Bateragarria. Aurreikusten diren garapenen zarata maila bateragarria dela esan daiteke. Hala ere, industriaguneetan zarata arazoren bat sortu daiteke.

| Ingurumen baldintzatzaileak | | A.I.U. Esparrua | | | | | | | | | | | | Ingurumen-eragina |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 Ergoene | 2 Papelera* | 3 Hirigunea | 4 Larraitz | 5 Sahiesbidea | 6 Alegialde | 7 Zabalkunde | 8 Jau.-Zubi. | 9 Lapatza | 10-Olalde | 11 Ugarte | Orokorra | |
| Lurzorua okupatua | Balorazioa | bateragarria | neurrizkoa | bateragarria | bateragarria | neurrizkoa | neurrizkoa | neurrizkoa | bateragarria | neurrizkoa | neurrizkoa | bateragarria | - | bateragarria |
| | Adierazlea: Azalera m²/eremu libreak (%) | 51.299 / %14,70 | 56.138 / %2,21 | 26.902 / %20,15 | 25.319 / %15,99 | 20.420 / %0,78 | 21.230 / %6,25 | 12.193 / %1,22 | 28.887 / %16,82 | 44.462 / %5.25 | 22.728 / %1,66 | 32.937 / %27,26 | 342.515 / %11,49 | |
| Lurzoruaren ahalmen agrologikoa | Balorazioa | bateragarria | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | - | ez esanguratsua | nabarmena | bateragarria | nabarmena | neurrizkoa | nabarmena | - | nabarmena |
| | Adierazlea: Mota agrologiko erabilgarriak m² | III mota: 9.800 | 0 | 0 | 0 | - | 0 | III mota: 8.457 | III-mota: 2.957 | III-mota: 38.890 | III-mota: 8.588 | III-mota: 20.600 | 89.292 | |
| Lurrazaleko ur-ibilguak | | bateragarria | bateragarria | bateragarria | bateragarria | - | bateragarria | bateragarria | bateragarria | bateragarria | | bateragarria | - | bateragarria |
| Intereseko landaretza | Balorazioa | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | bateragarria | nabarmena | neurrizkoa | bateragarria | - | bateragarria |
| | Adierazlea: Azalera m² | 0 | 0 | 0 | 0 | - | 0 | 0 | 91E0*: 4.000 | 91E0*: 8.288 | 91E0*: 3.798 | 91E0*: 188 | 91E0*: 16.274 | |
| Intereseko fauna | | bateragarria | bateragarria | bateragarria | bateragarria | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | | bateragarria |
| Eremu natural babestuak | Balorazioa | bateragarria | bateragarria | bateragarria | neurrizkoa | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | ez esanguratsua | | neurrizkoa |
| | Adierazlea: Parke Naturala/KBE azalera m² | 37.622/7.158 | 2.864/0 | 16.968/334 | 20.852/18.853 | - | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 78.306/26.345 | |
| Paisaia | | bateragarria | neurrizkoa | bateragarria | neurrizkoa | - | bateragarria | neurrizkoa | bateragarria | neurrizkoa | bateragarria | neurrizkoa | - | neurrizkoa |
| Kultur-ondarea | | bateragarria | ez esanguratsua | bateragarria | ez esanguratsua | - | ez esanguratsua | ez esanguratsua | bateragarria | ez esanguratsua | bateragarria | bateragarria | - | bateragarria |
| Uholde arriskua | Balorazioa | neurrizkoa | neurrizkoa | nabarmena | ez esanguratsua | - | nabarmena | neurrizkoa | neurrizkoa | neurrizkoa | bateragarria | nabarmena | - | nabarmena |
| | Adierazlea: Birgertatze aldien azalera m² | 10 urte:3.075 100 urte:4.210 | 10 urte:1.990 100urte:2.864 | 10 urte:1.870 100 urte:11.100 | 10 urte:0 100 urte:0 | - | 10 urte:2.080 100 urte:9.512 | 10 urte:0 100 urte:3.020 | 10 urte:2.641 100 urte:5.707 | 10 urte:4.050 100 urte: 5.000 | 10 urte:1.150 100 urte: 1.150 | 10 urte:7.470 100 urte:9.400 | 10 urte:24.326 100 urte:51.963 | |
